

Herririk Herri | 2

Abadiñoko Udalak aldaketa gehiago egin ditu Gantza-Zelaieta proiektuan



Berbaz | 8

Baserritar euskaldun eta brasildarren erronkak eta ardurak berbagai

Kultura | 12

Urriaren 5ean egingo dute San Agustin kulturguneko "bisita gidatu antzeztua"

KIROLA | 15

Atleta onenak Anboton gora Kilometro Bertikalean

Zapatuan Anboto
Kilometro Bertikala
lasterketa lehiatuko
dute Atxondon

Emakumezkoetan
Oihana Kortazar da
faborito; gizonetan,
Gasperi eta Manzi



370 parte-hartzaile lehiatuko dira, guztira, zapatu honetako lasterketan. Salernophoto.com

DURANGO | 02

Durangoko Orfeoiak irakurriko du Sanfausto jaietako pregoia

Udalak jai egitarauaren aurkezpenean jakitera eman duenez, Durangoko Orfeoiak botako du txupinazoa. Durangoko Gazte Mugimenduak urriaren 8rako Gazte Eguna antolatu du.

OTXANDIO | 13

**Errementarien
I. Topaketa
zapatuan,
burdingileen
herrian**

KULTURA | 11

**Luis Madina
argazkizale
elorriarraren
bilduma,
Iturrin ikusgai**

Elorrio | 6

Errebonbilo Eguna ospatuko dute domekan elorriarrek

Iurreta | 4

Sanmigel jaietako bigarren asteburua, ekitaldiz beteta

Atxondo | 7

Kulturarteko jaia antolatuko dute hainbat elkarte urriaren 8an

Zaldibar | 6

Izen-ematea hasita dago Ilargik antolatutako argazki lehiaketan



KOART 905

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxe: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Orfeoia pregoilari aste biko jaiei hasiera emateko

'Gu Gira' eta Esne Beltza taldeak dira udalak aurkeztu duen jai egitarauko kartelburuak

Urriaren 8ko txupinazoagaz hasiko dira ofizialki Sanfaustoak. Durangoko Orfeoia izango da aurtien Sanfaustoei hasiera emango diena, asteen udalak egindako aurkezpenean adierazi dutenez. Umeen Egunean txupinazo txikia Durango Judo Klub elkarteko Maria Bazan eta Eider Vivancok jaurtiko dute. Duela hiru urtetik aurrekontu bera dutela

Umeen Egunean, txupinazo txikia Durango Judo Klub taldeko kideek jaurtiko dute

nabarmendu dute aurkezpenean: 380.000 euro.

Musika arloan, Landako Gunean, urriaren 8an *Gu Gira* kontzertuan Gontzal Mendibil, Xeberri, Txomin Artola, Urko, Naia Robles, Gorka Knorr, Niko Etxart, Pantxo eta Peio eta Xabi Sansebastian bilduko dira. Urriaren 14an, Esne Beltza eta Emon, eta urriaren 15ean, Txarrena, Jare eta Oihan Vega dj-a arituko dira. Aurtengo berrikuntzetako bat Rock Izar Eskolaren Durango Saria maketa lehia-ketaren kontzertua izango da, Andra Marian: Oceans (Malaga) eta Doktor's Klub (Durango).



Jai batzordeko kideek aurkeztu zuten egitaraua, joan zen barikuan udaletxean.

Balkoitik balkoira arituko dirabertsotan urriaren 13an Igor Elortza, Amets Arzallus eta Miren Amuriza bertsolariak udaletxeko plazan. Urriaren 14an, berriz, San Agustin kulturgunean Maialen Lujanbiok, Andoni Egañakk, Unai Iturriagak eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek

380.000 euroko aurrekontua dauka jai batzordeak ekitaldiak antolatzeko

Josu Goikoetxearen esanetara jardungo dute.

San Agustin kulturgunean bes-telako ikuskizunik ere egongo da, gainera: Anthony Blake-en *Más cerca* lana eta Zirkus-en *Pantxika Lamur* helduentzako clowna urriaren 8an. ■ A. Ugalde

Akordioa sinatu dute asteen udalak eta txosna batzordeak

Adostu barik gelditu diren puntuak jaien ondoren eztabaidatzeko konpromisoa hartu dute

Txosna Batzordea eta Durangoko Udala ados ipini dira hainbat puntutan, eta martitzenean sinatu zuten txosnen inguruko akordioa. Oraindik adostu beharreko puntuak geratu direnez, jaien ondoren elkarlanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute alde biek.

Aurtien txosnak Pinondon ipiniko dituzte, eta txosnagunearen kokapenaz gainera, beste hainbat puntutan ere ados daudela azaldu dute alde bietako ordezkariak: "Toki txandaketagaz jarraitzeagaz ados gaude, Zumar Kalea ordezkariak."

katuko duen kokapen berri bat ezarrita". Soinuaren erregulazio egokia bermatuko duen neurgailua jartzeko ere prest daude, aurtien bertan hasita.

PSE-EEren kritika

Alderdi sozialistak azaldu duenez EAJk "propagandarako argazkia egiteko" txosnen errotazio berriko akordioa sinatu du. Jeltzaiek ez dituztela ez Kultura Batzordea ez beste alderdi politiko batzuk kontuan hartu gaineratu du Pilar Ríos zinegotzi sozialistak. ■ J.D.



Jose Alfaro, Ainara Atorrasagasti eta Andoni Iruarizaga.

Musika, bertso saioa eta kalejira urriaren 8ko Gazte Egunean

Hainbat kolektibo eta norbanakok elkarlanean sortutako egitaraua dela azpimarratu dute



Denetarikoko ekitaldiak prestatu dituzte Gazte Egunerako.

Olatuz olatu, gazte uholdie batu eta 400 baietz lako leloekin Sanfausto jaietan egingo den Gazte Eguneko ekitaldien berri eman du Durangoko Gazte Mugimenduak.

Urriaren 8an, 12:00etan, kalejira abiatuko dute Andra Mariatik, eta 15:00etan bazkaritara batuko dira. Ondoren, Miren Amuriza eta Unai Gaztelumendi bertsotan ibiliko dira Torraigai jartzailearen esanetara. 18:00etan presoan aldeko argazkia aterako dute, eta segidan Zpeiz Mukaki elektrotxaranga musika dantza-

garria eskainiko du. 20:00etan ekitaldia egingo dute txosnagunean. Gazte Egunagaz amaitzeko, hiru kontzertu izango dira txosnagunean, 22:00etatik aurrera: BEK, Itziarren Semeak eta Zopilotes Txirrius. Tiketak Intxaurren eta Alpinon daude salgai, zortzi euroan. ■ J.D.

BEK, Itziarren semeak eta Zopilotes Txirrius taldeek kontzertua eskainiko dute

Herria elkartea: "Nahikoa eskuzabalak izan gara Erraldegaz"

Gaur amaitu da Erraldek Durangoko hiltzearen jarraitzeko aukera luzatu gura badu aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko epea. Herria auzo elkar-teak argi du ezelako agiririk aurkeztu ezik luzatzerik ez duela gura: "Orain bost urte ere berdingeunden. Bi urterako epea ezarri genuen, eta ondoren beste hiru urte luzatu zen. Nahikoa eskuzabal jokatu dugula uste dugu".

Urriaren 5eko hirigintza batzordean eztabaidatuko dute Erraldegaz zer egin

"Badakigu langileak ere tarteaz daudela, baina nahikoa itxaron dugu"

Herriako kideek ulertzen dute "Erralden langileak daudela, eta Bizkaian ez dagoela beste hiltzeagatik; badakigu horiek kontu serioak direla eta orain arte, urte askoan, erantzukizun osoz jokatu dugu". Erraldek finantzabide agiririk aurkeztu ezik, argi dute udalari "esku hartzeko" eskatuko diotela hurrengo batzarrean. Urriaren 5ean hirigintza batzordea batuko da eta bertan eztabaidatuko du udalak Erralderen egoera. ■ J.D.



Aurrerantzean ere antzeko ekimenak antolatuko borondatea erakutsi dute DAZeko kideek.

Alde Zaharraren historiaren berri emateko hitzaldiak DAZen eskutik

Urritik abendura lau hitzaldi emango dituzte Durangoko Udal Liburutegian

Urritik abendura bitartean, Durangoko Alde Zaharraren historia ezagutzera emateko lau hitzaldi antolatu dituzte. Durangoko Alde Zaharra elkarteak antolatuta, hitzaldi guztiak gazteleraz izango dira, Udal Liburutegian, 19:00etan hasita.

Lehenengo hitzaldi biak Belen Bengoetxea EHuko irakasle eta arkeologoak emango ditu. Urriaren 6koan indusketa arkeologikoei buruz jardungo du; Bengoetxeak San Anako indusketetan parte hartu zuen. Alde juridikoa ere landuko dute, bizilagunei indusketek zelan eragin diezaiokeen argituz. Bigarren hitzaldia aza-

roaren 10ean eskainiko du, eta denboran zehar hiribilduak jasandako garapena izango du hizpide. Azaroaren 24ko hirugarren hitzaldia Gerediagako kide Jon

Hitzaldiak gazteleraz izango dira, Udal Liburutegian, 19:00etatik aurrera

Lehenengo hitzaldi biak Belen Bengoetxea EHuko irakasle eta arkeologoak eskainiko ditu

Irazabalek eskainiko du, eta Gerra Zibilak Durangori zelan eragin zion azalduko du; bonbardaketa-ko irudiak ere erakutsiko ditu.

Laugarren eta azkeneko hitzaldia Javier Sagastizabal eta Jesus Iturraldek emango dute, abenduaren 1ean, eta urteetan zehar batutako kuriositate eta anekdota historikoak jakinaraziko dituzte.

Hauxe da Durangoko Alde Zaharra elkarteak antolatu duen lehenengo hitzaldi zikloa, eta aurrerantzean ere "arlor horretan sakontzeko" asmoa agertu du Jose Mari Arrillaga DAZeko presidentek. ■ J. Derteano.

Biribilgunea aurrekontura egokitzeke PSE-EEren eskea

Fray Juan de Zumarraga eta Alluitzen arteko errotonda proiektua aurrekontutik gorakoa ei da

Fray Juan de Zumarraga eta Alluitz kaleen arteko bidegurutzean biribilgunea egiteko 362.421 euroko aurrekontua duen egitasmoa aurkeztu zuen udal arkitektoak irailako lehen Hirigintza Batzordean. "Berez, horretarako 275.000 euro

Proiektuak San Inaziegaz lotuko duen bizikleta erreia egitea ere jasotzen du

zeuden gordeta", azaldu du Durangoko PSE-EEK. Sozialistek egitasmoa adostutako diru-atalera egokitzeke eskatu dute: "Diru horregaz biribilgunea polit eta erabilgarria egin daiteke, mantentimendu kostu apalagaz".

Argitu dutenez, San Inaziegaz lotuko duen bizikleta erreia ere jasotzen du obrak, Astepe, Alluitz eta Ambrosio Meabe kaleetako herritarrei zerbitzua emanez. Era berean, "etorkizun hurbil baten" Durango eta Iurreta "batuko" ditu: "Durangoko semaforo guztiak kendu eta inguruko bidegurutzeak ordenatzea ekarriko du". ■ J.D.

Amankomunazgoko agintea PSE-EEren esku

PSE-EEK dioenez, ez dute akordiorik adostu EAJ eta Bildugaz: "Aukera guztiak zabalik daude"

Durangaldeko udaletako ordezkari politikoek hartu dituzte euren karguak maiatzeko hauteskunde ondoan. Orain, Durangoko Amankomunazgoaren txanda da. Urriaren 11rako erakunde horrek egitura politikoa erabakita egon beharko luke. EAJk eta Bilduk boto kopuru bera daukate, beraz, alderdi sozialistaren esku botoa izan daiteke giltza.

"EAJ eta Bildugaz batu gara, baina proposamen finko eta zehatzik ez digute egin"

PSE-EEK prentsa oharrean adierazi duenez, Amankomunazgoko presidentea aukeratzeko ez dira ez EAJ ez Bildugaz ezelako akordiora heldu: "Bi alderdiek hala eskatuta batzartu gara, baina negoziazio barik, ez direlako gai programatikoak edo proposamen zehatzak kontrastatu".

Sozialistek prentsa oharrean gaineratu dutenez, "arretaz" entzun dituzte EAJk eta Bilduk esandakoak. "Ez dagoenez proposamen finko eta zehatzik, aukeraguztiak zabalik jarraitzen dute, beti ere, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzea helburu izanda", azaldu du alderdi sozialistak.

Lehen laguntzako ikastaroa emango du Gurutze Gorriak

Azaroaren 7tik abenduaren 1era izango da, astelehenetik egunera, egunean hiru orduan

Durangaldeko Gurutze Gorriak lehen laguntzaren inguruko ikastaroa antolatuko du azaroaren 7tik abenduaren 1era. Ikastaroak 48 ordu izango ditu, eta astelehenetik egunera izango dira 18:30etik 21:30era.

Klaseak edonorentzat zabalik daude, eta kurtsoaren amaieran, gaitasun frogagaitu ondoren, diploma kreditatzailea eman-

go da. Aztergaiak ondokoak izango dira: biktimen hasierako ebaluazioa, lipotimia, bihotzekoa, konorterik barik egotea... Unibertsitateko ikasleek, gainera, kredituak lortu ditzakete ikastarohoriek osatzeagatik.

Izen-ematea e-mail edo telefono bidez egin daiteke: formaciondurango@cruzroja.es edo 600 989 551. ■ J.D.



Inguruko bidegurutzeak ordenatzea ahalbidetu du biribilguneak.

XIII. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

- 20 kiloko gaztaren dastaketa
- Txahala burduntzi erara
- Umeentzako artisau tailerra

Andaparape **11:00 - 15:00**

Urriak - 2011

DURANGO

San Fauston 48.000 metroko lur zatia zelan urbanizatu erabaki dute

Udalbatzarrak baiezkua eman dio Layde inguruko eremua zelan antolatu dioen proiektuari

San Fauston, Gernikako Arbola plazaren eta Bernardo Gabiola kalearen (Laminaciones y Derivados, Layde, enpresaren ingurua) artean dagoen lur zatia zonalde-ka banatzen duen proiektua onartu dute, asteon, udalbatzarrean; 48.000 metro karratu horiek zelan banatuko dituzten (parkeak, erai-kinak...) dio dokumentuak.

Zonalde horretan babestutako 90 etxebizitza egingo dituzte; beste 90 tasatuak izango dira, eta 250 inguru libreak. Umeentzako parke bat ere aurikusita dago, besteak beste.

Oraindik hainbat urrats falta dira proiektua gauzatzeko. Zonalde horretan 17 jabe daude, eta

Zonalde horretan 90 bizileku tasatu, 90 babes ofizialeko eta 250 libre egingo dituzte

hurrengo pausua jabe horiek osatzen duten adostasun batzordea batzea izango da. Ondoren, urbanizazio proiektua osatu eta eta udalbatzarraren onespengaz lehiaketa publikoan jarriko dira.

Aralarrek eta Bilduk kontra bozkatu dute, ez daudelako ados arau subsidiarioekin

Egitasmoa EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin onartu zuten. Aralarrek eta Bilduk, aldiz, aurka bozkatu zuten. Aralarreko Dani Maezturen esanetan, ez daude ados arau subsidiarioekin, eta horretan oinarritutako proiektua denez kontra bozkatu dute. Bilduko Urdaspal Bolinagak, berriz, "etxebizitzak etorkizuneko beharrianak kontuan hartu barik" egiten direla salatu du.

BERRIZ

Nobedadeak aurkeztu dituzte ikastaroetarako

Aurretik arrakasta izan duten ikastaroez gainera, lau berri ere eskainiko dituzte urritik aurrera

Berrizko Udalak bederatzi ikastaro prestatu ditu aurtengo ikasturterako. "Euretako batzuk azken urteetan erantzun ona izan duten ikastaroak dira" eta, diotenez, errepikatu egingo dituzte: areto-ko dantzak, zeramika, salsa, mikologia tailerra eta sabel dantza.

Hala ere, eskaintza hori osatu eta lau ikastaro berri ere eman-

go dituzte aurten aukeran: marko-jartzea, ardo dastaketa, kantua eta arropak birziklatzea.

Ikastaro guztien prezioen, ordutegien eta gainerako baldintzen informazioa udaleko webgunean dago eskuragarri. Bestela, udalera bertara ere jo daiteke.

Ekainera arte

Kultur Etxean eman behar da izena ikastaroetan, urriaren 3ra ordurako. Hurrengo egunetik aurrera hasiko dira ikastaroak, atalez atal eta mailaz maila; ekainera arte iraungo dute. ■ M.O.

Gaztelekuko urriko egitaraua aurkeztu dute

Zapatuetan eta domeketan egingo dituzte tailer, antzerki, irteera eta irudi emanaldiak

Berrizko Gatelekuan urrian garatuko den kultur egitaraua argitaratu dute udal arduradunek. Barikuetan ere zabalik egongo den arren, zapatu eta domeketan antolatuko dituzte ekintzak; deneri-koak izango dira, gainera.

Domekaro antzerki tailerra edukiko dute aukeran gazteek; urriaren 23an izan ezik, egun

horretan mendi irteera egingo dute eta. Hilaren 30ean ere Hallo-weenerako apainduko dute Gaztelekua; 31n afaria egingo dute.

Zapatuei dagokienez, bihar bertan makillaje fantastikoaren tailerrean batuko dira. Hurrengo asteetan, pelikulak, serigrafia tailerra eta udalekueko irudien emanaldia izango dituzte. ■ M.O.

IURRETA



Montoitik jaurtitako txapligoekin batera eman zieten ondoetorria Sanmigelei iurretarrak. Anboto

Etenik bako jai giroan sartuta daude iurretarrak aste honetan

Gaur hasi eta Errosario Eguna heldu arte makina bat ekitaldi izango dira

Montoitik jaurtitako txapligoekin batera abiatu dituzte Sanmigelak iurretarrak. San Migel bezperan zuten hasierako hitzordua, eta atzokoa izan zuten egun handia: San Migel Eguna. Ohitura jarraituz, dantzari eta agintarien kalejiragaz hasi zuten eguna; meza amaituta, *Dantzari dantza* eskaini zuten Mikel Deunako dantzariak, eta gero

Munduko kulturak oinarri hartuta, Mozorro Eguna ospatuko dute zapatuan

Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano eta Unai Iturriaga bertsolariak egin zuten saioa. Herri kirolek, dantzariak eta Txiri-Txiriren doinuek bete zuten arratsaldea. Hala ere, Errosario Eguna heldu arte, badago zer gozatu Iurretan.

Umeentzako karaokeak abiatuko du, gaur, Bariku Zurixe. Askondon izango da, 17:00etan. San Migel jaietako X. Txapelketako finalak ere jokatu dute, eta Iurretako neska-mutil txirrindulari taldearen aurkezpena egingo dute. Ardoa Barrura txarangak alaituta, poteoa antolatu dute, eta

gau giroa Los Txikis taldearen bil-bainadek ez ezik, Desperdizio taldearen kontzertuak eta Edanen erromeria doinuek alaituko dute.

Umeentzako karaokeak abiatuko du, gaur 17:00etan, 'Bariku Zurixe'

Munduko kulturak ardatz, Mozorro Eguna dute bihar, herri bazkaria, bertso jaialdia eta dantzekin. Domekan, besteak beste, XIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute. ■ A.B.

Zaharberrituta aurkeztu dute bandera jendaurrean



Irailaren 27an bete du mendea Iurretako banderak. Horrelaxe jasotzen dute udaletxean gorteko agiriak, eta egun horixe aukeratu dute Gerediaga elkar-teak eta 1911-2011 Herri Batzordeak zaharberritutako bandera aurkezteko. Bandera originala izan da aurkeztutakoa: ezkutua eta atzealdea, urte askoan bereizituta egon direnak, batu egin dituzte berriro.

Banderaren inguruko liburuxka eta DVDa ere aurkeztu zituzten udaletxeko pleno aretoa bete zuen ekitaldian. ■ A.B.

MALLABIA

Batzarrak herrigune zein auzoetako bizilagunekin

Udalaren eta herritarren arteko hartu-emana sendotu gura dute iritzi eta iradokizunak jasoz

Mallabiko Udalak herriguneko eta auzoetako herritarren iritzi eta iradokizunak ezagutzeko batzar-antolatzen dihardu irailean eta urrian. Antolatze asmoa duten lau batzarretatik bi egin dituzte dagoeneko. Irailaren 22an Gere-

Mila Mondragon: "Auzokideek gustura erantzun diote ekimenari. Batzarrotan euren premiak azaldu ditzakete"

eta Longako auzokideekin bildu ziren Gereako elkartean, eta irailaren 26an, Goitako bizilagunekin San Juango elkartean. Mila Mondragon alkateak adierazi duenez, "auzokideek gustura erantzun diote udalaren ekimenari, batzar horietan euren premiak azaltzeko aukera daukatelako".

Hurrengo hitzordua Areitio, herrigunea, Osma eta Zengotitako auzokideekin jarri du udalak: urriaren 3an, 19:00etan, Kultur Etxean. Berano Txiki, Berano Nagusi eta Arandoñoko biztanleak udalagaz Artixe elkartean batuko dira, urriaren 6an, 19:00etan. ■ A.B.

IBERO Cruceros-ekin elkarlanean:



BAUTISTAREN ALTZARI BAT NAHI BADUZU HEMEN BAKARRIK AURKITUKO DUZU BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-N

Kalitateagatik

Proiektu pertsonalizatuagatik

Profesionaltasunagatik

Muntaketagatik

Saldu ondorengo zerbitzuagatik

*Beste zerbaitekin bila bazabiltza
begiratu beste denda batzuetan,
Gauza batzuk ezin dira imitatu*

AURTEN, GAINERA, 1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK
BI LAGUNENTZAKO OPARIA ZUZENEAN



Zurekin ospatu gura dugu gure 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

☎ 94 672 77 00

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu arteko eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako

ELORRIO

Iguriako gurutzea zaharberritzeko lanak adjudikatu ditu udalak

Eremuak mugatzeko erabiltzen ziren bederatzi gurutze mantentzen dira Elorrioren, eta horietako bat da Iguriakoa. Udalak gurutze hori zaharberritzeko du datozen asteetan, eta horretarako lanak esleitu ditu dagoeneko.

Lanen aurrekontua ia 12.000 eurokoa da eta, horren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiak 8.760 euroko diru-laguntza eman dio udalari. Ana Otadui Elorrioko alkateak aipatu duenez, hilabetean burutuko dituzte beharrak.

Ana Otadui alkateak aipatu duenez, hilabetean burutuko dituzte beharrak

Gurutzean lan hauek garatu-ko dituzte: eragin biologikoa ezabatzea, oinarria indartzeko tratamendua, azterketa bolumetrikiko eta kromatikoa, gatzgabetzea, garbiketa eta finkatzea. Behar horien azken helburua gurutzearen azalera babestea izango da. ■ M.O.

Errebonbiloen alarde eta dantzek hartuko dute herria domekan

Goizaldeko orduetan ekingo diote kalejirari, eta arratsaldean dantzak eskainiko dituzte plazan

Errebonbiloen tiro hotsekin esnatuko dira, domekan, elorriarrak. Tradizioari jarraituz, sasoi batean hainbat herritan zeuden defentsa-talde antolatuen antzezpen-ekimena da urriko lehenengo domekan Elorrioren ospatu ohi dena.

Errebonbiloen kalejiragaz ipiniko dute martxan eguna, 05:00etan, salbajoz. Ohiturak dio udaletxera eta Sortzez Garbiaren basilikara begira bota behar dituztela lehenengo tiroak; ondoren, ohiko bideari ekingo diote, txistu eta tanbolinaren doinuari segika. Alkatearen etxe aurrean ere botako dituzte tiroak, eta hurrengo gel-

Errebonbiloen kalejiragaz ipiniko dute martxan eguna, goizeko 05:00etan

dialdia, gosalduz, indarrak hartzeko ekingo dute.

Musika eta dantzak

Goizetik hasi arren, jaiak ez du atsedena hartuko egun osoan. Eguerdiko 13:30ean Durangaldeko txistulariek eta Berrio-Otxoa orfeoia kontzertua eskainiko dute plazan, egitaraua osatuz.

Durangaldeko txistulariek eta Berrio-Otxoa orfeoia kontzertua eskainiko dute

Horretaz gainera, arratsaldeko 17:00etan berriro ere alardean irtengo dira Errebonbiloak, eta dantzarako tarte ere hartuko dute gazteek ondoren. Plazan eskainiko dute dantza erakustaldia. ■ M.O. naindia.



Tradizio handiko ekitaldia da Errebonbiloena. Kepa Aginako

MAÑARIA

Batzorde irekiak finkatzea du erronka nagusi udalak

Legegintzaldi hasieratik burutu dituzten batzorde zabaletan ez ei du herritar askok parte hartu

Legegintzaldi honetako "erronka nagusietako bat", batzorde irekien bitartez herritarrek udalak jorritzen dituen gaietara erakartzeko bideak bilatzea dela azaldu digu Endika Jaio Bilduko alkateak. Herritarrek udaleko gaietan "parte-hartze zuzena izatea oso garrantzitsutzat" daukela dio gobernu taldeak.

Herritarrek udalean lantzen diren gaietara "erakartzeko bideak bilatzea" gobernuaren erronka nagusietako bat da

Horretarako bideak "probatu" eta behar bada "asmatu" beharko dituztela diote.

Orain arte burutu dituzten gaikako batzarretan, batez ere, "lan taldeak sortzea eta proposaturiko gai ordena eztabaidatzea" izan dela egin dutena azaldu du ezker abertzaleko alkateak.

Hirigintza, Ingurumena eta Kultura sailei buruzko batzarrak burutu dituzte legegintzaldi hasiera honetan; gehien jota, herritarrik hartu dutela parte azaldu du alkateak, eta jendea zelan erakarriz aztertzen dihardutela. ■ I.E.

IZURTZA

Gimnasia eta musika Izurtzan, euskara Mañarian

Udalak urtero antolatzen dituen gimnasia eta solfeo ikastaroak ez eze, euskara eskolak aukeran

Orain dela astebetera arte, udaletxean eman ahal izan dute izena ikasturte honetan solfeo eta gimnasia ikastaroetan parte hartu gura dutenak. Urtero legez, urrian ekingo diote herritarrek ikastaro biei. Gimnasia saioetan jardun gura duten herritarrek, hiru hilero 25 euro ordaindu beharko dituzte.

Euskara ikasi, Mañarian

AEK-k Mañarian eskainiko dituen euskara ikastaroetan parte hartzeko interesa dutenei, Izurtzako Udalaren bitartez informazioa jaso eta izena emateko deialuzatu diete, asteon. Oinarrizko maila, EGA prestakuntza eta Autoikaskuntza ikastaroak eskainiko dituzte. ■ I.E.

ZALDIBAR

Ilargik eratutako argazki lehiaketa, martxan

Azaroaren 16ra arteko epea ipini dute lanak aurkezteko; 300 euro jasoko ditu irabazleak

XXI. Argazki Lehiaketa antolatu du Ilargik, Zaldibarko argazkilari taldeak. Dagoeneko aurkeztu daitezke lanak, eta azaroaren 16an ipini dute muga. Hain zuzen ere, San Andres jaien bueltarako amaituko da lehiaketa.

Gura duten guztiek hartu dezakete parte, gai librean, argaz-

Zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu, erabakia egilearen esku utzi dute antolatzaileek

ki bina aurkeztuz. Zuri-beltzean edo koloretan, erabakia egilearen esku utzi dute. Hori bai, inoiz saritu bako argazkiak aurkeztu behar dira derrigor. Lanak 30x40 zm-ko tamainako kartulina batez indartuta bidali behar dira Ilargiren egoitzara; bestela, Imendia denda ere eskura entregatzeko aukera ere badago.

Azaroaren 18an emango dute epaia, eta 25etik 30era ikusgai ipiniko dituzte udaletxe zaharrean. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 250 eta hirugarrenak 200. Herriko argazki onenarentzat, berriz, 150 euroko saria gordeko dute. ■ M.O.



40 lagun batu ziren zapatuan udalaren auzolanerako deiari erantzunez

Udaleko gobernu taldearentzat "egun garrantzitsua" izan zen zapatukoa; horrela diote auzolaneko ekimena baloratzerakoan. Auzolana euren "programaren eta irizpideen zati garrantzitsua" dela diote, eta pozik azaldu dira jendeak erantzun egin zuelako. 40 herritar batu ziren, aitzurra eta pala eskuan, parke bitan lan zehatzak egiteko: Lehendakari Agirrekoan harri bolkanikoa kendu zuten, eta Taberna-solokoan zuloak estali.

"Zaldibartarrek jakin behar dute herriaren parte direla; parte hartu behar dute herriaren bizitzan eta erakuntzan", diote. Gainera, euren ustez, "krisi garai honetan auzolanak aukera ematen digu dirua aurrezteko".



Durangaldean labor

Garate eta Uriarte, EAJko zinegotzi berriak Atxondon

Migel Angel Buruagak eta Jose Luis Espiauk zinegotzi kargua utzi eta gero, Atxondoko EAJk Jose Antonio Igarzagaz batera jardungo duten zinegotzien berri eman du; Kike Garate eta Gaizka Uriarte izango dira. “Ilusioagaz eta gogoagaz jardungo duten gazteak” direla azaldu du EAJk. Oharrean, alkateordea lanor- du osora liberatzea ere kritikatu du EAJk, udalaren- tzat gastu handiagoa izango delako.

Urbinan AHTaren kontra atxilotutakoen epaiketa

2009ko urtarrilaren 17an Urbinan AHTaren kontra egin zen manifestazioan atxilotuta- ko sei lagunen epaiketa hasiko da eguazte- nean, urriaren 5ean, Gasteizen. Epaitueta- ko bat durangarra da. Fiskaltzak desobe- dientzia, istiluak eta autoritatearen kontrako atentatua egotzen die, eta 2 eta 4 urte bitar- teko kartzela zigorra eskatzen du.

Zaindu programaren udazkeneko eskaintza

Menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako hainbat ikastaro eta tailer antolatu dituzte Zaindu progra- maren baitan. Antsietatea, gaixoaren eta zaintzaileen beharren oreka... hainbat gai landuko dituzte. Infor- mazio gehiago: Durangoko adine- koen udal egoitzan, Astarloa kalean.

Esperientzia Intitutuan izena emateko aukera

Urriaren 8a da azken eguna 55 urte- tik gorakoentzako Esperientzia Ins- titutuan izena emateko. Ikastaro bi antolatu dituzte: *Egungo mundua bizitzeko gakoak* eta *Komunikazioa, berrikuntza eta sormen trebetasu- nak*. Behargintzan eskuratu daiteke informazio guztia.

ABADIÑO

Aldaketa gehiago Gantza-Zelaietako hirigintza proiektuan

Lanak “faseka” burutu ahalko dituzte enpresek

Abadiñoko Independienteak eta EAJ alderdien aldeko botoagaz onartu zuten Gan- tza-Zelaietako proiektu eraikitzaile- ri dagokion aldaketa, iraileko ohiko bilkuran. “Enpresa eraikitzaile- leek ingurua urbanizatu barik utzi ez dezaten ziurtatzeko bermea da aldaketa hau”, azpimarratu zuen Jose Luis Navarro alkateak.

Gantza-Zelaietan 400 etxebi- zitzatik gora eraikitzea jasotzen duen hirigintza egitasmoa gara- tzeko ardura duten enpresa biek, lanak “faseka” egitea ahalbidetu- ko du egitasmoaren aldaketak.

J.L. Navarro: “Ingurua urbanizatu barik geratu ez dadin bermatu gura dugu”

Jeltzaileek eta Independien- teek onartu zuten proposamena- ren kontra bozkatu zuen Bilduk: Aitor Azueta bozeramaileak azpi- marratu zuenez, “eraikuntza faseen diseinua promotoreen esku utziko dute aldaketa horregaz”. Hirigintza Batzordeak aho batez hartutako erabakiei balio juridi- koa ematea proposatu zuen udal- batzarrean Bilduk, baina propo- samenak ez zuen aurrera egin.

Aurrekariak
Proiektua garatuko zuen promo- toreak eta udalak hiru urte lehe- nago sinatutako hitzarmenean hainbat aldaketa ezartzen zituen dekretua aurkeztu zuen iazko irai- lean Navarro alkateak plenoan; “hasierako hitzarmena gaurko egoerara moldatu beharra ikusi” zuten, azaldu zuenez. ■ I.Esteban



400 etxebizitza baino gehiago eraikitzea aurreikusit dute.

Sarai Mimenza jeltzalea, juntarako ordezkari

Durangaldeko Amankomunaz- goko Juntan Abadiñoren orde- z- kari izateko Sarai Mimenza zine- gotzi jeltzalearen hautagaitza- ren alde egin zuten Abadiñoko Independienteak eta EAJ alder- diek irailaren 27ko bilkuran.

Zinegotzi jeltzalearen hautagaitzaren alde egin zuten Alk eta jeltzaleek

Hauteskundeetan boto kopuru handiena lortu zuen Aba- diñoko Independienteak alder- diake zuten taldeko inor aurkez- tu bozketan. Saioa Zuazubizkar zinegotzia proposatu zuen Bil- duk; Aitor Azueta bozeramailea- ren berbetan, “aurkeztera behar- tuta” zeudela iritzi zioten. Sarai Mimenza zinegotzia proposatu zuen EAJk, eta hautagai hori babestu zuen Alk. ■ I.E.

OTXANDIO

Errementarien lehenengo topaketa antolatu dute

Zapatuan Bizkaia eta Nafarroako 15 bat errementarik euren abilezia erakutsiko dute herriko plazan

Otxandio erremintarien herria izan da tradizioz. Udaletxe pareko pla- zan erremintarien omenezko eskultura bat ere badago horren adierazgarri. Herriari hain lotuta egon den ofizioa ezagutarazteko asmoz, hainbat herritarrek Erre- mintarien I. Topaketa antolatu dute zapatuan. Katalunian eta Asturiasen egin izan dira antzeko topaketak, baina Euskal Herrian egingo den lehenengoa izango da.

Guztira, 15 bat erremintari batuko dira plazan, eta gehienak Bizkaitik eta Nafarroatik etorriko dira. Denek batera, elkarlanean, hesi bat egingo dute, 10:00etan hasita egun osoan zehar. Ondo-

ren, hesi hori plazatik Gaztetxera doan bidean —bide nagusian barik, ezkerrealdetik doan bidex- kan— ipintzea da asmoa.

14:00etan bazkaritara batuko dira, eta 16:00etan berriro burdi- na lantzeari ekingo diote. Ekime- na herrira zabaldu gura dute anto- latzaileek, eta gura duenari mai- lua hartu eta ofizioa probatzeko aukera ere eskainiko diote.

Gaztetxean luzatuko da jaia
19:00etan, denek batera jaitsiera egingo dute Gaztetxera, eta han jarraituko du jaiak. Gaztetxeak antolatuta, 20:00etan luntx herri- koia egingo dute, eta 20:30ean Kuntur Lee kantautoreak kontzer- tua eskainiko du. 23:00etan B.E.K, Amarrasa eta Maldan Behera taldeen kontzertuak daude.

Ekimena Gaztetxeko beheko solairuko barra inauguratzeko baliatuko dute. ■ J.D.

ATXONDO

Kulturarteko hainbat ekitaldi datorren astean

Urriaren 8rako egun osoko egitaraua antolatu dute: merkatua, jana, dantzak, jolasak, musika...

Herriko hainbat elkar-terren elkar- lanagaz kulturarteko eguna anto- latu dute Atxondon urriaren 8rako. Egund osoko egitaraua egund da zapatu horretan; merkatua, jana- ri dastaketa, musika, munduko jolasak... Aste bitartean ere mun- duko kulturen gaineko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Aste osorako egitaraua prestatu dute herriko elkarte eta norbanakoek

Marixurrike elkartearen eta udaleko kultura batzordearen eki- mena izan zen hasieran kultur- teko eguna ospatzea, eta herriko hainbat elkarte eta norbanako batu dira antolaketa lanetara.

Urriaren 4an hasiko dira jar- duerak. Ludotekan, 17:00etatik 20:00etara, ehungailu mayagaz

txapelak egiteko tailerra dute. Eguaztenean, urriaren 5ean, *Babies* izeneko dokumentala eskainiko dute; 17:00etan Ludo- tekan umeentzat, eta 19:00etan Gaztetxean adin guztietakoent- tzat. Eguenean munduan zehar bizikletaz egindako bidaia kon- tatuko dute *1.000 mila* hitzaldian Urdin Ugartek eta Izaro Martine- zek, 19:00etan Gaztetxean.

Urriaren 8ko jaia
Zapatuan, kulturarteko dantzak, merkatua, eta janari zein edari das- taketa izango dira, besteak beste. Goizean bakearen jaima eta mun- duko jolasen txokoa ipiniko dituz- te, eta eguerdian Uannah taldeak kontzertua eskainiko du. Arra- tsaldean munduko dantzen tai- lerra edukiko dute, eta zapatuko egitarauagaz amaitzeko *Atxiki- tan 11 salto gehiago* antzerkia eskainiko dute umeentzat. ■ A.U.

GARAI

Lagun giroan ospatu dute jubilatuek Aste Kulturala

Urtero legez, aurtan ere burutu dute Garaiko jubilatuek Aste Kul- turala, San Migel nagusien elkar- tearen ekimenez sortua. Aste osoan hainbat txapelketa izan dituzte, eta atzo, egun handian, bazkarian elkartu ziren.

Atzoko bazkarian, Herriko Tabernan, 30 bat lagun elkartu ziren

Egunotan tute, briska eta mus torneoak jokatu dituzte Otea-Loran elkartean, eta “bost- sei mahai” osatu izan dituzte egunero. Atzo San Migel egune- ko meza eta bazkaria ospatu zituzten Herriko Tabernan, eta 30 bat lagun batu ziren bertan. Bazkalostean, gainera, txapel- ketetako sariak eskaini zituzten, eta elkarteko nagusienak ere omendu zituzten: Antonio Etxei- ta eta Juana Barberias. ■ M.O.

BERBAZ>

“Mundu mailako elikadura krisia saihesteko premiazkoa da elikadura subiranotasuna”

Euskal Herriko eta Brasilgo baserritarrek euren ardurak eta erronkak antzekoak direla adierazi dute Durangon.



Sonia Ingunza Zumalde, Valter Israel Da Silva •

■ Sonia EHNE Bizkaiako kidea da
■ Valter Brasilgo nekazari txikien MPA elkartekoa

“Esportaziorako nekazaritza ez da baserritarren filosofiakoa”

Munduko baserritarren elkar-lana badabil fruituak ematen? Zertan lagundu dezake?
V. I. S.: Elikadura subiranotasuna garatzeko mila modu daude, eta elkarren metodoak ezagutzea garrantzitsua da norberarena hobetzeko.

Batean eta bestean, munduko baserritarren erronkak antzekoak direla azaldu dute Euskal Herriko eta Brasilgo nekazari txikien Elkarteko kideek euren esperientziaren berri eman dute.

Baserritarren erronkak antzerakoak dira mundu osoan?

Valter Israel da Silva: Hemen ikusi dugu Euskal Herriko baserritarrek eta guk lurra eta landaguneko bizitza ikusteko modu bera daukagula. Desberdintasun handiena hemen baldintza ekonomiko hobeak dituztela da, baina filosofia eta ditugun arazoak berdinak dira. Horrek harritu egin gaitu; guk bizitza guztian entzun dugu Europan ez dagoela baserritarrik, Brasilen nekazaritza familiarra deitzen diotena baino; merkataritza eta esportaziora bideratutako nekazaritza da nekazaritza familiarra. Inbertsioak egin eta dirua irabaztea da euren helburua, eta hori ez

“Elikadura produkzioa ziklo txikietan itxi beharko litzateke; elikagaiak ekoiztu eta eurak kontsumitzeko eskubidea daukagu”

dator baserritarren bizitza filosofiagaz bat. Bizitzeko modu bat da baserritar izatea: familiaren garapenari begira behar egitea, lurra ikusteko modu bategaz, kultura bategaz... Baserritarren helburu nagusia familiaren bizitza kalitatea da, auzokideekin hartu-emanen.

Sonia Ingunza Zumalde: Nik Hegoaldeko baserritarrek lehen munduagaz duten menpekotasuna nabarmendu gurako nuke. Azken hamarkadetan Iparraldean nekazaritza galtzen dabil, eta merkeago ekoizten duten herrialdeetako produktuak inportatzen dira bertara. Eredu horrek munduko baserritar guztioi eragiten digu. Hegoaldean ekoiztita, ematen du han lana eta aberastasuna sortuko direla, baina ez da horrela; herri horiek txirotu egiten dira eta elikadura ekoizleek

geroago eta gose gehiago dute. Munduko beste baserritar batzuk ezagututa konturatzan zara denok dauzkagula erronka berdinak.

Zer erronka dira horiek?

S. I. Z.: Ekoizteko eredu bidegarri eta interesgarri baten bila gabiltza, banaketa eredu on bat gura dugu, eta bizitza kalitate duina lortzea. Hiru arlo horiek hobetuz gero, munduko elikadura ekoizpena segurtatuko genuke. Baina espekulazioan dabilen monopolioen esku dago banaketa, eta nekazal politikak orain arteko bidetik jarraituz gero, datozen hamarkadetan elikadura krisi bat gertatu daitekeela pentsatzen dugu. Hori ez gertatzeko beharrezkoa da elikadura subiranotasuna.

V. I. S.: Bai. Tokian tokiko baserritarrek bertan ereiten

dituzten produktuek eduki beharko lukete lehentasuna, eta ez produktu inportatuak. Eskubidea daukagu elikagaiak ekoiztu eta ekoiztutako horiek kontsumitzeko. Produkzioa ziklo txikietan ixtearen aldeko filosofia dago elikaduraren subiranotasunean.

S. I. Z.: Europan baserritarrik ez zegoela esan duzu, eta egia da asko gutxitu direla: diotenez, duela 50 urte biztanleen % 80 baserritarra zen, eta hemen ekoizitakoa jaten zen. Orain baserriaren arazo handiena lurra da. Ez da errekturso naturala, espekulazio objektu bihurtu da. Lurrik onenak industriadako kalifikatu dituzte, eta gelditzen dena oso garestia da. Gaur egun, nekazaritzarako lurra lortzea gure erronketako bat da.

“Euskal Herrian nekazaritzarako lurra lortzea da erronketako bat”

Zer ikasi duzue hartu-eman horietatik? Zer erronkei zabiltzate aurre egiten?

S. I. Z.: Euskal Herrian ikusi dugu ekoizpen dibertsifikatua dela garrantzitsua, merkaturatzea zirkuitu laburrean egiten ahalegintzen gara, eta produktu lokala bultzatzen. Bide horretatik gabiltza beharrean.

V. I. S.: Brasilen biztanleen % 18 inguru baserritarra da. Bertan kontsumitzen den janariaren % 60 guk ekoizten dugu, eta kredituen % 10 da guretzat. Gobernu esportaziorako ekoizten dutenei begira dago, ez baserritarroi. Agronegozioak modernoak kontsideratzen dira; baserritarrak, atzerapena. Gu Nekazaritza Plana garatzen gabiltza, baserritarren komunitateak indartzeko. Hemen ekoizpen eta kontsumo taldeetan egiten den beharra oso interesgarria iruditzen zaigu, eta baita EHNEren prozesu progresiboaren ideia; eredu produktibo txikietatik hasi, eta apurka-apurka handitzen joateko aukera. Hori oso baliagarria izan daiteke Brasil. ■ A. Ugalde



M. Jose, eskuman, Berbalaguneko dinamizatzaillearekin.

"Lotsa kenduz, jende asko ezagutu eta eurekin euskaraz berba egiteko aukera ematen dizu Berbalagunek".

M. Jose Romo Gallardo.
Berbalaguneko partaidea.

Mari Jose Romo Gallardo 38 urteko durangarra da. Lanbide Heziketako ikasketak egin zituen, eta orain erizaintza-laguntzailea izateko ikasketak egiten dabil. Orain dela 3 urte hasi zen Berbalagun egitasmoan parte hartzen eta datorren urtean ere jarraitzeko asmoa dauka.

Noiztik Berbalagunen?

Orain dela 3 urte hasi nintzen Berbalagunen parte hartzen.

Zelan izan zenuen Berbalagunen berri?

Euskaltegian bertan. Irakasleak esan zigun Berbalaguneko partaideak herriko hainbat txokotara batzen zirela, euskaraz praktikatu eta lantzeko asmoz.

Zer dela-eta erabaki zenuen Berbalagunen izena ematea?

Niri euskara asko gustatzen zait eta, hasieran, hitz egiteko lotsatu-edo egiten nintzen. Euskaltegira etorri nintzenean irakasleak esan zigun Berbalagun zegoela eta aproposa zela lotsa kentzeko. Horregatik eman nuen izena eta, egia esan, oso ideia ona izan zen.

Zelan sentitu zara berbataldean?

Oso ondo. Oso giro ona egon da taldean; beno, taldeetan, ni bi taldetan ibili naiz eta. Barikuetan Kafe Antzokira joan izan naiz. Taldean Pili, Inazio-eta, izan ditut berbalagunak eta oso gustura ibili naiz. Gainera, pila bat dakite eta asko ikasi dut. Eguaztenetan umeen eskola-ordutegian biltzen gara, eskola ondoan. Guztiok gurasoak gara eta eskolako gorabeherak, gehien bat, izaten ditugu hizpide.

Elkarrekin hitz egiteaz gain, bestelakorik egin duzue?

Bai. Afariak, hamarretakoak... Batez ere, jan-edana.

Berbalagunek antolatutako ekitaldiren baten parte hartu duzu?

Bai. Durangoko bisita gidatuan, sagardotegira irteeran... Oso giro ona egoten da.

Aurten baduzu berriro parte hartzeko asmorik?

Bai, bai. Duda barik.

Saiatu zaitez jendea Berbalagunen parte hartzera animatzen.

Lotsa kentzen duzu, jende pila bat ezagutzen duzu eta jende horrekin euskaraz egiteko ohitura hartzen duzu. Berbalagunek merezi du, benetan.



Izena emateko lekuak

DURANGO: AEK euskaltegia, Udal euskaltegia, Hizkuntza Eskola, Berbaron eta Euskara Sailan.
ELORRIO: AEK euskaltegia eta Euskara Zerbitzuan.
ATXONDO: Kultur Etxean.
MAÑARIA: Kultur Etxean.
IURRETA: Ibarretxe Kultur Etxean.
ZALDIBAR: Udaletxean.
ABADIÑO: Errota Kultur Etxean.
BERRIZ: AEK euskaltegia eta Euskara Zerbitzuan.
IZURTZA: Udaletxean.
OTXANDIO: Udaletxean.

"Berbalagun momentu bat da; euskeraz berba egiteko momentu bat. Eta gu, euskaldun zaharrok, euskaldun berrien ondoan egotea garrantzitsua da".

Imanol Gaztañaga Urkola.
Berbalaguneko laguntzailea.



Imanol Gaztañaga Urkola Legorretan jaio zen, baina dagoeneko 40 urte igaro dira Elorriora bizitzera etorri zenetik. Imanol arduratuta dago euskeraren egoeratik; batez ere, euskaraz dakien jendearen erabilera eskasagatik: "Euskeraz erderaz bezain erraz eta eroso berba egin daitekeela erakutsi beharra daukagu euskaldunok".

3 urte daramazu parte hartzen, baina zelan izan zenuen Berbalagunen berri?

Aspalditik, Elorrioren sortu zenetik, ezagutzen dut nik Berbalagun. Orain dela 3 urte aukera izan nuen laguntzeko eta izena eman nuen. Euskaraz dakigunok, nahi badugu jendeak euskeraz egitea, euskaldun berriei laguntza berezia eman behar diegula pentsatzen dut.

Berbataldean zelako giroa izan duzue?

Ona. Jendea pozik ibili dela dirudi. Gu eguaztenetan batzen ginen eta oso arraroa izan da jendeak huts egitea. Ondo, ondo konpondu gara, taldean nahiko jende desberdina izan arren.

Berba egiteaz gain, beste "betebehar" batzuk izan ei dituzue txokotan...

Beno, bai. Taldean arrantzaile bat izan dugu eta noizean behin berak harrapatutako arrainak ekartzen zizkigun eta... badakizu... arrainak sukaldatu eta "pintxo-lagun" egiten genuen: euskaraz berba egin bitartean arrain-pintxoak jaten genuen.

Euskaraz bizi den laguntzailearen parte hartzea beharrezkoa da Berbalaguneko aurrera egin dezan.

Laguntzaileak beharrezkoak dira, euskaraz egiteko ahaleginetan ari den jendeari erakusteko euskaraz badakigula, alde batetik; eta euskaraz egitea erdaraz egitea bezain erraza dela esateko, aldarrikatzeko, bestetik. Eta esan ere, harro esan behar dugu horretan sinesten dugula. Jendea euskararen munduan murgiltzera animatu behar dugu; eta merezi duela esan. Ikasten dabilen jendeak asko eskertzen du, gainera, gu inguruan izatea. Berbalagun ez da klaseak emateko zera bat, momentu bat; baizik eta berba egiteko momentu bat.

Izan zaitez nire BERBALAGUN

Informazioa

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com

durangaldea@ae.org

BERBALAGUN: euskaldunon harreman sarrerik handiena

Partaideak EHUko krediturik eskuratu ahal dituzte, baita eta egozailararako deskontuak, abuztu eta berria martxoaren artean.



euskara
atsegin
dut!



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Tabirako eta euskara

Tabirako saskibaloi klubaren presidente andre agurgarria,

Aitorpen batekin hasi beharra daukat: ni ez nintzen egon irailaren 23an egin zenuten 2011-2012 denboraldiko aurkezpen ekitaldian, baina laster izan nuen han gertatutakoaren berri, San Antonio-Santa Rita ikastetxeko guraso batzueiesker. Haserre zeuden zuek antolatutako ekitaldian ez zelako euskara erabili. Eta ordutik gutun hau idatzi dudana arte hamaikatzu lagun etorri zaizkit sututa kontu berarekin.

Pare bat arrazoi sinesgarri okurritzen zaizkit egin duzuen hautua azaltzeko:

- Nahi gabe edo konturatu gabe baztertu duzue euskara: ezinezkoa! Iaz beste horrenbeste egin zenutelako eta gure protesta helarazi genizuelako.

- Ez duzue euskaraz egin dezakeen speakerrik aurkitu: hau ere ezinezkoa, jakin badakidalako zeregin hori burutzeko prest dagoen bat eta bi baino gehiago direla Durangon. Ezeren truke eta bikain egingo luketenak gainera.

Gogora ekarri nahi dizut, joan den apirilean, ordezkatzeko duzun kirol-erakundeak eta Durangoko sei ikastetxek, gure arteko harremanak finkatu eta hobetzeko asmoz, hitzarmena sinatu genuela. Egun hartan (2011ko apirilaren 4an), elkar ezagutzeko aukera izan genuen eta aurrez aurre esan zenidan zure asmoa zela aurrerantzean klubean euskarari bultzadaxoa ematea. Hitzok, antza, haizeak eraman zituen.

Baina idatzitakoarekin ez dahalagertatzen. Idatzitakoaren begien bistan eta lekuko gisa geratzen delako. Honelaxe dio duela zazpi hilabete sinatu genuen testuaren 23. artikulua: "Hitzarmen honen harira zehazten diren ekimen guztietan Tabirakok konpromisoa hartzen du euskara erdara beste erabiliko duela, hala nola, webgunean, bileretan, fitxetan, aurkezpen jaialdietan eta abar".

Konpromiso hitzak esanahi bakarra dauka: "norbaitek zer bait egiteko emandako hitza edo bere gain hartutako eginkizuna".

Jakin ezazu irailaren 23an egindakoak bi gauza nabarmen erakusten dituela: batetik, errespetu falta ikaragarria gure seme-alabak euskaraz hazi, bizi eta hezi daitezela nahi dugunokiko. Eta bestetik, euskarari dagokionez behintzat, zure hitzak eta ordezkatzeko duzun kirol-erakundearenak, ahozkoak zein idatzizkoak, ez duela ezer balio. Zero.

Amaitzeko, gustura entzun edo irakurriko nuke nirekin batera hitzarmena sinatu zuten gainontzeko ikastetxeetako ordezkariak eta aurkezpen ekitaldian egon ziren udal ordezkariak gertatutakoaz duten iritzia. Bakoitza nor den eta zertan dabilen argitzen lagunduko ligu keelako.

Adeitasunez,

Elixabete Larrinaga Artetxe- Kurutziaga Ikastolako presidentea

Olatuz olatu, gazte uholdie batu

"Ozeanoak pasatzen dituzten arrain bakartiak lez, errari, naufrago gabiltz intxaur oskol baten, haize erauntsien mirabe, norabide gabe."

Aurten Durangoko gazteen txalupak kolore berriak dakartza, eta itsasoko ekaitza borondatez atzean utziz, gazte uholdiak, bizi-eredu desberdin baten iparrorratza jarraiki, norabide zuzenean nabigatuz garmatza. Gazte kolektibo eta norbanakoak elkarlanean arraunean jarri eta Mañaria errekatik abiatuz Durangoko bihotzean ertzeratu dugu. Izan ere, urte honetako Gazte Egunak zentzu berezia du guretzat, gure herriko gazteak osatzen dugun mugimendu koloretsuarentzat. Gorri, more, berde eta tonu guztietako nortasunak batu ditugu aurtengo Sanfausto jaietan gazte mugimenduari bultzada bat emateko, eta itotze-raino mantentzen gaituzten irla honetan, ukatzen diguten ozeanoa,

espazioa, errebindikatzeko. Ez dugu nahi urriaren 8an Durangon ospatuko dugun Gazte Egunerako prestatu dugun guztia partaide baka-rrak herriko gazteok izatea, eta horregatik eguneko egitarauak denetik dakar: eguerditik koadrilen jaitsiera, kalejira eta gazte bazkaria, bertso saio batekin jarraituz, eta ondoren presoan aldeko argazkia, elektrotxaranga, ekitaldi bateratua, eta, gauari hasiera emateko, kristoren kontzertuak.

Beraz, urriaren 8an Durangoko gazteok zita berezi bat dugu, eredu parte-hartzaile eta herrikoian oinarritutako zita; gure aldarrikape-nak ozen oihukatzeke zita; zipriztinak uholde bihurtzeko zita. Gazteak batu eta aurrera egiteko zita. Aurten, 400 gazte baietz!

Urriaren 8ra arte,

Olatuz olatu gazte uholdie batu!

Durangoko Gazte Mugimendua

Aurpegigogor guztien gaintetik

Gaur egungo panorama politikoa eta alderdi batzuen ibilbidea ikusita, ez nintzateke batere harritu beharko, eta are gutxiago gure alkate mai-tearen alderdia bezalako batekin.

Hala ere, inuzentea ni, asko harritu ninduen 75.000 euro kobratzen dituen alkate batek lehenengo pertsona hitz egiteak etxeetako zein familetako gastu murrizketei buruz. Bere gastuak ez ditut ezagutzen, agian asko izango dira, izan ere, euren soldaten murrizketen aurka ager-tu ziren hauek eta beste alderdi "demokratak" ere udal pleno batean. Bai alkatearen alderdiak bai beste alderdi askok ez dute pentsatzen haien soldatak elitistak direla, eta biztanleriaren errealitatekin at daudela. Bes-te zinegotziek 56.000 euro inguru kobratzen dute! Zer gehiago behar da aurpegigogor eta lapur batzuk direla ohartzeko? Bistan denez, lapur-tzen digutenak gorrotatzen ditut, baina haien boto-emeleak ere mes-pretxatzen ditut. Nire iritziz, alderdi guztiak kaka bat dira, baina batzuek beste batzuek baino okerrago usaintzen dute, eta horretan objektiboa izan behar da.

Alkateari egungo egoera ekonomikoak aurrera diola suposatzen dut, baina seguru nago bere ikuspuntu eta irtenbide ekonomikoa asko urrun-tzen dela langile arrunt baten ikuspuntutik.

Nire ikuspuntutik eta nire klasearena den egoeratik, argi dago gure alkatearenekoa ez beste klase batekoa naizela. Oso lotsa gutxi eduki eta aurpegigogor handia izan behar da orain dela aste pare bat idatzi zuen artikulua zakarra idazteko; *Sasi guztien gaintetik* titulua zuena.

Sasi guztien gaintetik arrastatu behar dugu langile guztiok. Zuek bezalako elorriak eta asunak gure bidetik apartatu behar ditugu; zurea bezalako alderdi kapitalistak, gure egunerokotasuna oztopatzen dute-nak. Zuek zarete erre behar den sasia: gaztetxeak husten dituzuenak, manifestazioak erreprimitzen dituzuenak, iraultzaileak espetxeratzen dituzuenak, langileak esplotatzen dituzuenak eta askoz basakeria gehia-go. Zementuz bihurtutako sasi zitala zarete, gure mendiak proiektu fara-onikoekin txikitzen dituzuenak, langileen izerdiaz bizi zaretenak.

Baina, aldi berean, duintasunez bizitzeko ahaleginak egiten dugu-nak gara gu: etxebizitza batera sartzeko banku batekin kateatuta egon nahi ez dugunak, esplotaziorik gabeko lanpostu duin bat nahi dugu-nak eta sistema madarikatu honen aurka borrokatzen direnekin elkar-tasuna adierazten dugunak. Zuen irabaziak mantentzeko errepresioa, biolentzia instituzionala eta estatuaren terrorismoaren bitartez defen-datzen eta berrestrukturatzen duzuen sistema honen aurkakoei gau-de.

Zuek zarete daukagun egoeraren errudunak eta egunen batean ego-era latz hau aldatzea lortuko dugu. Azken finean, lehenago edo geroa-go, edozein inperio erori egiten da.

Iker Oñate Barrainkua

Sei hankako mahaia



Dani Maeztu Aralar

Iraunkorra vs. jasangarria

Euskaltzaindiari 'garapen iraun-korra' lokuzioa 'garapen jasan-garria' baino gehiago gustatzen zaio. Nik neure ikuspegia daukat gai horretan. Garapena, iraunkorra baino, jasangarria-go egin beharko genukeela uste dut. Alegia, ingurumenak jasan ahalko duen garapena aukeratu behar dugu gure gizar-tearentzat; osterantzean, gara-pen eredu iraunkorra egitea gura dugula esaten dugunean, gaur egungo garapen eredu kapitalista eta kontsumistare-kin jarraitzea eta berau denbo-ran iraunkor egitea gura dugu-la esaten ari garela iruditzen zait. Ezberdintasuna azentua jar-tzen den zerean dago: inguru-mena errespetatzean ala kapi-talismoaren biziraupena berm-atzean.

Gure eskualdean jasanga-rritasunak gainezka egin duela dirudi: AHTaren gehiegikeria, nekazaritzaren gainbehera, lan-gabezia tasak, porlanaren garai-pena, etab. Orain, Eusko Jaur-laritzak bere iraunkortasunaren ildotik jarraitzeko proposamen berria egin du: EkoEuskadi 2020 egitasmoa. Txostenean, guz-tiok amesten dugun eskenot-kia diseinatzeko digute 2020ra begira, guztia iraunkorra eginez, euren politikari zertzelada ber-deak emanez. Ez dira kontura-tzen, ordea, egin beharrekoa paperean jasotzeak ez duela ezer aldaraziko. Berba handiak erabili gura izan dituzte, alda-ketak gauza txikiak aldatuz lor-tzen badira ere.

Propaganda eta marketi-na, bi hitz horiek definitzen dute gobernu honen eta beste batzuen politika arlo horretan. Ez dute sinesten benetako jasangarritasunean, eta ezin dute sinestu. Euren alderdiak defendatzen dituen interes eko-nomikoak ezin dira gelditu, ezin dira jasangarri bilakatu natura-rentzat. Zelan azalduko diete harrobietatik, eraikuntzatik, erreka eta atmosfera kutsa-tzetik bizi direnei, uzten ari garen aztarna ekologikoa jasa-nezina dela?



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko irailaren 30a - 10. urtea - 430 zk.

Laguntzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrtea.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]ERAKUSKETA[>] ELORRION

“Urteek aurrera egin ahala, handitu egin zait zaletasuna”

‘Grabatutik zinemara 1850-1950’ erakusketa zabaldu dute, gaur, Iturri kultur etxean. Elorrioko Udalaren babesagaz ipini dute ikusgai **Luis Madinaren** bilduma: grabatu, argazki eta zinema munduko harribitxiak



Zerk bultzatu zintuen irudiari buruzko bilduma hau osatzera? Argazkigintzara zaletuta, horren aurretik zer ote zegoen hasi nintzen neure buruari galdezka, eta grabatuaren mundura gerturatu nintzen. Ondoren, gaian sakondu ahala, interes berriak sortzen zaizkizu; zootropo bat erosten duzu, gero estoskopio bat... Zabaldu eta zabaldu joan da bilduma, puntu honetara ailegatu arte.

Oso gazterik ekin zenion irudiagaz lotutako munduari buruzko informazioa batzeari?

Hogei urte gaz hasi nintzen argazkiak egiten; gutxi egiten genituen, baina, oso garestia zelako. Urteek aurrera egin ahala gehitzen joan zait argazkigintzagazko zaletasuna eta ilusioa. Behin jubilatuta, bidaiatzeko, argazkiak egiteko eta ikertzeko denbora gehiago eduki dut. Emaztea nire konplizea da, gainera, eta zortea da hori.

Afizioa konpartitzen duzue, emazteak eta biok, beraz.

Bai. Horrela ez balitz, ezinezkoa litzateke honetan jardutea; Normandiako herri batean aurkitu genuen liburua topatzeko, esaterako, berak bilatu zuen liburudenda, berak zekien ordutegia... Berak bultzatu ninduen.

“Gerra erreportajeak dira grabatuok, eta dirudunek bakarrik eskura zitzaketen”

Gerra Karlista islatzen duten grabatuak dira erakusketako alerik zaharrenak.

Ilustratutako argitalpenen *boom*-a gertatu zen XIX. mendean: tren eta irudi baten serieak egin ahal izateko teknika garatu ziren garai hartan. Hogeita hamazortzi gra-

batu daude erakusketan. Asko gehiago erakutsi nitzakeen, baina gertuko paisaiak erakusten dituztelako aukeratu ditut hauek. Gerra Karlitari buruzko erreportajeak dira grabatuok, eta sasoi hartan jende dirudunaren eskura zeuden bakarrik.

Baliabide eta teknikok gizarte osora zelan joan ziren zabaltzen islatzen da erakusketan.

XV. mendean margolariak erabiltzen zuten kamera ilunaren kasua da joera horren adibide argia: kamera horretako irudiak poalderatzen proiektatzen bururatu zitzaion behin norbaiti, eta masa proiektzioak etorri ziren gero. Lumierek lehenengo pelikula proiektatu zuen neguan, esaterako, hamalau mila “kamera magiko” zeuden Frantzian.

Helburu didaktiko oso argiagaz antolatu duzu erakusketa.

Erakusketaren helburu nagusia irudiaren historiari buruz modu didaktikoan jardutea da. Elorrioko ikastetxeetako hirurehun ikaslelik gora etorriko dira, eta Lorea nire alabak gidatuko ditu eurentzako bisitak. Arratsaldero, 16:30etik 20:00etara, neu egongo naiz erakusketa zaintzen.

Bildumako zein objektu edo ale baloratzen duzu gehien?

Bi liburu aurkitzeak egin zidan ilusiorik gehien; Gustave Doréren *España* eta Mañé i Flaquer-en *Viaje al país de los fueros*. Oso garestiak dira, eta prezio onargarrian topatu arte ez nituen erosi. Baina, bildumako gauza guztiak lortzeak egiten dizu ilusioa, aurretiko lan baten emaitza direlako, besteak beste; gauzak irakurri dituzu, ikertu egin duzu... Bilatu eta aurkitzea beti da betegarria.

Zelan dokumentatzen zara?

Liburuak, liburuak eta liburuak irakurriz, eta azken urteotan internet erabiliz ere bai. Gauregun, XIX. mendeko liburuak sarean dauzka gu irakurgai, eta gure eskualdeko herriei buruzko erreferentziak topatu ditzakegu, esaterako, horietako hainbatetan. ■ I. Esteban

Aitaren 1935eko kameragaz egin zituen lehenengo argazkiak



Betidanik jardun izan du Luis Madinak argazkiak biltzen; Elorrioko argazkiak batzen, bereziki. Horrela, Elorrioko historia fotografikoari buruzko liburua kaleratu zuen 2007an, lagun batek lagunaren testua eta Elorrioko 300 argazki eskaini zituzten liburu hartan.

Oso gaztetandik bizi da Madina irudiaren munduak harrapatuta.

Urriari Iturri kultur etxean ikusgai izango den erakusketakoak lako aleak erostea “inbertsio handia” ote den galdetu, “erretzen ez duen edonork egin dezake hau” esan

Argazkiak egiten eta irudiari buruzko bilduma osatzen jarraituko du Luis Madinak

digu barrez: bestelako biziorik ez duenaren aisialdiko gastua omen da.

Argazkiak egiten, irudiaren gaineko bilduma osatzen, jarraituko du Madinak; zigarroagaz legez, esan digu, hasiz gero gaitza da uztea: “Honek ez du amaierarik; utziko banu, ostrasismoan sartuko nintzateke”. Ezelako estatusunik barik, soseguz, zaletasuna gozatuz, eta prisa barik baina gelditu barik jarraituko du.

Besteak beste, Frantzian egiten dituztenak lako herrietako azokak baliatzen ditu argazkizale elorriarrak erakusketan honetakoak lako makina eta liburuak eskuratzeko: emazteagaz bidaiatzen du, autokarabanan.

“Irudiak berez dauka balio dokumentala”, dio, eta ideia hori ingurukoengan zabaldu du beti; urteetan ganbaretan, zapa-kaxetan, ahaztuta egondako argazki zaharrak gordetzea garrantzitsua dela transmititu die familiakoei eta lagunei.

Urtean argazki-film bakar bat betetzen zuela bere aitak kontatu digu Madinak; eta 1935eko aitaren kamera haregaz egin zituela lehenengo argazkiak.

ANTZERKIA > BISITA GIDATUA

“Ezustekoen bidaia” San Agustinen, antzerkiaren sekretuak ezagutuz

Urriaren 5ean izango da, 19:30ean, “bisita gidatu antzeztu” berezi hau egiteko aukera San Agustin kulturgunean

Urriaren 5ean da, 19:30ean, San Agustín kulturgunean antolatutako berri duten “bisita gidatu antzeztu” parte hartzeko lehenengo aukera. Antzokia bera eta antzerkia barrutik, gertuagotik, eta beste ikuspuntu batetik ezagutzeko proposamena da kulturgunetik Durangaldeko antzerkizaleei luzatu dietena.

Ikasturte berriko Durangoko kulturgunean prestaturiko nobedadeetarik bat dira urriaren 5ean eta azaroaren 9an aukera izango ditugun bisita gidatuak.

Ganso & Cia “durangartutako clown-ak” zuzendu eta Karrika taldekoek burutuko dute antzerkiaren eta aretoaren zirrikituak erakusteko antzezpena.

“Ezustez beteriko bidaia da” proposatzen dutena. Antzerkiaren eta antzokiaren barrunbeetan bidaiatuko dute eta, besteak beste, kutxa beltza, eszenarako makinaria, aldagelak... antzerkiaren sekretuak bistaratu ditzkie antzerkizale eta bisitariei.

Doan izango dira bisitak, baina izena eman beharra dago, talde txikiak osatu gura

Ganso & Cia konpainiak zuzendu eta Karrika taldekoek antzezturiko bisita gidatua

baitituzte: sanagustin@durango-udala.net Interneteko helbidea, zein 946030021 telefonoa baliatu daitezke izena emateko.

Urriaren 5eko lehenengo hitzorduan bisita gidatuetan parte hartzerik ez duenak azaroaren 9an, 19:30ean, izango du San Agustinen bigarren aukera. ■ I.E.



ERAKUSKETA > DURANGON

Salvador Campilloren irudiak eta lau emakumeren istorioak

Joan zen barikuan inauguratu zuten *Mujeres de vida alegre* erakusketa

Emakumeen Trafikoaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, irailaren 23an inauguratu zuten *Mujeres de vida alegre* erakusketa, Durangoko Andragunea egoitza.

Munduko Medikuek GKEko lehendakari Teresa Maura Barandiaranek eta Duran-

Munduko Medikuek GKEko lehendakariak eta udaleko ordezkariak inauguratu zuten

goko Udaleko Berdintasun Batzordeko buru Goiztidi Diaz Basterrak hartu zuten joan zen barikuan inaugurazio ekitaldian parte.

Salvador Campillo argazkilariarenak dira erakusketa bilduta dauden erretratuak; prostituzioaren jarduten duten lau emakumeri egindako argazkiekin batera, lau emakumeon bizitzaren historia eta egoerak ere kontatzen ditu erakusketak.

Lau emakumeren bizitzaren istorioak eta argazkiak daude erakusketa bilduta

Urriaren 5a arte egongo da erakusketa ikusgai, Durangoko Andragunean

Urriaren 5era bitartean egongo da zabalik antolatzaileek genero biolentziaren adierazpen moduan ulertzen duten prostituzioaren errealitateari buruzko argazki erakusketa, Durangoko Pinondo Etxeko Andragunean, arratsaldero. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Ondarea, ondasunak

Egunotan, eguraldiaren ederraz, udagoiena hasteaz batera izaten dugun kultur eta aisialdi betekadatik aldendu guran, geure Durangaldeko zenbait bazterretan ibili naiz paseoan. Haizeak astindutako zuhaitzetako hostoen soinua beste bat da sasoiotan. Ez da hosto sortu berriena bezalakoa. Nire aberria iritsi naiz, ume aroan bizi nintzen horretara. Eraistea eta ondarea darabilzkit bueltaka buruan. Badira urteak ni jaiotako etxe zaharra bota zutenetik; ikusi nituen suntsigailuak hormaren kontra jotzen, eta puskak zelan jausten ziren hauts bihurtzeraino. Aberriaren zati bat kendu zidatela sentitu nuen orduan. Antzeko irudiak ikusi ditugu pasa den astean; Euskal Herriko sortzaile askoren iritziz, sortze fabrika den eraikina suntsitzen, alegia.

Historian zehar metatzen diren herri baten ondasun material edo kulturalen multzoa ei da ondarea, garai jakin baten ondorioz gizartearen gelditzen dena. Horrelaxe definitzen du hiztegiak.

Ondarearen Europako jardunaldiak direla-eta, Foru Aldundiak aukera ona eskaini digu gure kultura eta ondasunak ezagutzeko, izan ere, jardueraren sorta interesgarria proposatu du lurraldeko hainbat udalerritan egiteko. *Argiak eta aurre-rapena, Bizkaia ilustrazioen garaietan* esloganpean plazaratu dute ekimena. XVIII. eta XIX. mendeko ilustratuek argi zuten mundua hobetu zitekeela, herritarren bizi-kalitatea hobetu zitekeela, alegia. Eta arlo guztietan antolaketa eta jarduteko erak aldatzeko proposatu zuten. Geroztik hona, ilustratu larregi eta aurre-rapen gutxi; jarduteko eratan, behintzat.

Ehun urte barrura egin dut jauzi, urrunera. Hortik, goian nagoen lekutik, XX. mendeko bigarren erdiari errepasoa ematen ari natzaio, baita XXI. mende hasierako urteei ere. Aldundiak argitaratutako liburuxka digitalean ez dut ikusten inongo sortze fabrikarako bisitarik, ezta kultura adierazpen berrien aterperik ere. Zuhaitz eta landare autoktonodun basorik ez dago, iturriak eta baserriak ere urri. Mendi larrerik ere ez da ageri, suntsitu egin baitituzte. Horiek guztiak ere badira, ba, garai jakin baten ondorioz gizartearen gelditu diren ondasunak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 1
11:30ean
IRRIEN LAGUNEKIN
KANTA ETA DANTZA. Sarrera doan.

URRIAK 1 19:00etan
“EL AVARO” Molivieren lana
OTRO TEATROren eskutik. Doan.

URRIAK 2 17:30ean
ZIRKUN ZIRKO
HAURRENTZAKO EKITALDIA. 3euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



EL CABALLERO
DE OLMEDO
de Lope de Vega
Teatro Corsario
Urriak 2 • 20:00

SAN AGUSTIN
EZAGUTU
BISITA GIDATUAK
Urriak 5 • 19:30

San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA



Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776



JAIALDIA > MUSIKA

Musika eta antzerkia gozagai Durangon, elkartasun jaialdian

Gaur eta bihar, Landako erakustazokan eta Plateruenean izango da **Duranwop**



Gaur, irailaren azken egunean hasi den jaialdiaren bigarren egunerako, urriaren 1erako, Euskal Herriko zein nazioarteko musikarien zuzenekoak izango ditugu Durango Landako erakustazokan gozagai: zerrenda luzea, oparoa da kartelean jaialdiaren bigarren egunerako ere osatu dutena: The Gra-

Umeei zuzenduriko kanta eta dantzak, 11:30ean, Plateruenean

ve Yacht Club, Steve Wynn, Ariel Rot, TheWOP Band&Friends, Smile, Gari, J.C. Brooks & The Uptown Sound eta M Clan-ek joko dute.

Irabazi asmorik bako The Walk On Project elkarteak bultzatu eta Durangoko Udalak zein BBK-k lagunduko duten jaialdi kultural eta solidarioarekin bateginda, Plateruena kafe antzokia ere bilakatuko da Duranwop jaialdiaren gune urriaren 1ean.

Goizean, 11:30ean hasita, kanta eta dantza ikuskizuna izango dute gaztetxoek, Irrien Lagunen eskutik, Plateruenean. Umeentzako ikuskizuna legez, doakoa izango da Moliere-n testu batean oinarrituta Otro Teatro taldeak osatutako *El Ávaro* klasi-koaren moldaketa ere; 19:00etan hasiko da emanaldia, Plateruena kafe antzokian. Doakoak izango dira biharko Platerueneko emanaldi bi horiek.

Gaur eta bihar, dozena bat musika taldek baino gehiagok

hartuko dute Durangoko jaialdian parte; eta The Walk On Project elkartearen helburuekin bat eginda, ezohiko gaixotasunen ikerketara bideratuko dituztelortutako irabazi guztiak.

‘El Ávaro’ klasikoaren gaineko Otro Teatro taldearen antzezlan

Musikazaleentzako eta ezohiko gaixotasunak dituztenekiko elkartasuna adierazi gura duten guztientzako aukerakoa da, beraz, gaur eta bihar Landako erakustazokan eta Plateruenean izango den jaialdia. Urriaren 1ean 16:00etan izango da lehenengo kontzertua, eta soul musika jorratzen duen Chicagoko JC Brooksek eta bere taldeak itxiko dute Duranwop jaialdia. ■ I.E.

LEHIAKETA > GRAFFITIAK

San Fausto jaietako graffiti lehiaketarako izen-ematea

Urriaren 7ra arte aurkeztu ditzakete graffitigileek lehiaketan egin gura dituzten lanen zirriborroak

Urriaren 7ra arte aurkeztu ditzakete graffitigileek Durangoko Sanfausto jaiei barruan (urriaren 15ean) burutuko duten lehiaketan osatu gura lituzketen lanen zirriborroak eta dokumentazioa.

Udalaren www.durango-udala.net helbidean topatuko dituzte lehiaketaren oinarriak Duran-

goko jaiei egitarauaren barruan jasotako ekimen horretan parte hartzeko interesa dutenek. ■ I.E.



Sanfausto jaiei barruan egingo dute lehiaketa, urriaren 15ean

PINTURA > LEHIAKETA

Durango Uria pintura lehiaketa, hamaikagarrenez

Atzo arte eduki dute Durangon bizi edo Durangaldeko Artisten Elkar- teko kide diren margolaiek euren lanak Arte eta Historia Museoa- n aurkeztu eta Durango Uria lehi- aketara aurkezteko aukera.

Durangaldeko Artisten Elkar- teak antolatu du margo lehiaketa hau, hamaikagarrenez. Gaia zein teknika libre dira, margolariek hautatu ditzaten.

Aurkezturiko lanen artean 600 euroko lehenengo saria, 450eko bigarrena eta 300eko hirugarrena zein herriko onenari emandakoa nori egokitu Durangoko Udaleko Kultura Saileko ordezkariak eta hainbat artistak osatutako epai- mahaiak erabakiko du. Urriaren 12an, Ezkurdiko aretoan egingo dute sariak banatu eta erakuske- ta zabaltzeko ekitaldia. ■ I.E.

2011/2012 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILEEI ZUZENDUAK

KATALOGO MODULAR BERRIA

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA	PRESTAKUNTZA MODULUAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	Txirbil harroketa bidezko mekanizaketan dauden makinak eta sistemen prestatzea eta programatzea	Fabrikazio prozesu osagarriak txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Mekanizazio prozedurak txirbil harroketa bidez	80
	Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	CNC programaren egiaztapena eta doikuntza txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktuen ezaugarrien egiaztapena	30
		(Zeharkakoa) Ingurugiro eta lan arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	30
TUTUEN INSTALAKUNTZEN FABRIKAZIOA ETA MUNTAIA (Profesionaltasun ziurtagiri osoa)	Tutuen trazaketa eta mekanizaketa	Tutuen fabrikazioaren planoen interpretazioa	50
		Tutuen garapenaren trazaketa	40
	Tutuen konformazioa eta antolaketa	Tutuen mozaketa eta mekanizazioa	60
		Konformazioa eta kurbatzea tutuen fabrikazioan	40
	Tutuen muntaia	Tutueriaren gauzatzea	70
Tutuak muntatzearen antolaketa eta garapena		60	
MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA INSTITUZIOETAN (Gaitasunaren egiaztapenerako baliagarriak)	Instituzio arloko ekintzen antolakuntza laguntza	Tutuen mihiztadura eta euskarrien muntaia	50
		Tutuen muntaiaren soldadura	80
	Instituzioetan menpeko pertsonentzat ekintzen antolakuntza laguntza	70	
IBILGAILUEN KARROZERIKO ESTRUKTUREN MANTENTZE LANAK	Elementu finkoak	(Zeharkakoa)Elementu finkoen desmuntzea eta banatzea	60

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Posizio horizontaleko TIG soldadura	50
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50
Gas fluoratuak maneiatzeko baimena	40
Karretila jasogailua gidatzeko baimena	20
Soldatzaileen Homologazioa	60

DOAN

LANGABETUENTZAKO

Geriatría laguntzarako zaintzak	354
Txirbil harroketa bidezko mekanizatua	468
Karrozeria	400
Giro naturaleko soldadura	445

ETXEBARRI AUZOA, ZG / 22Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM

IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

Walk On
Project-en
1. urteroko
festa



Antolatzailea Babesleak



durango

bbk

DURANGO • Landako Gunea eta Plateruena Durangoko Kafe Antzokia

OSTIRALA

IRAILAK 30
Hasiera:
18:00

**Loquillo • Elliott Murphy
& The Normandy Allstars**

The Whybirds • The Right Ons

Aurora Beltrán • Mi Hermana Corina

LARUNBATA

URRIAK 1
Hasiera:
16:00

M-Clan • Ariel Rot

Steve Wynn • J.C. Brooks

& The Uptown Sound • Smile

Gari • WoP Band & Friends

• The Grave Yacht Club •

SARRERAK:

- BBK KUTXAZAINAK
- WWW.BBK.ES
- WWW.WALKONPROJECT.ORG
- OHIZKO DENDAK
- WWW.TICKETMASTER.ES

EGUN BATEKO SARRERA

25€

ALDEZ AURRETIK

30€ TXARTELDEGIAN

BI EGUNETAKO BONOIA

40€

ALDEZ AURRETIK

45€ TXARTELDEGIAN

Irabazitako diru guztia "ezohizko" gaixotasuen aurkako terapien ikerketarako bideratuko da

**Familia osorako aktibitateak
(Denak Doan)**

Larunbata. Urriak 1

10:30 - 14:00:
(Landako)

ludoteka, urpekaritza,
rokodromoa, frontoia,
saskibaloia, ...

11:00 - 13:00 eta
16:30 - 21:00:
(Plateruena)

antzerkia, magia, pailazoak,
ipuin kontalariak, ...

Bazkari herrikoia.... eta prezio herrikoiak

Laguntzaileak:



GRAN HOTEL DURANGO
★★★★



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



gozatu.euskaltel.com

Euskotrenen zerbitzu
bereziak gau guztian zehar
Bilbo eta Ermuarantz



Informazio gehiago: **www.duranwop.com**

KIROLAK >

Anboto Kilometro Bertikala bihar, nazioarteko atleta onenekin

Apurka-apurka nazioartean izena hartzen dabil bihar lehiatuko den proba, eta munduko onenak etorriko dira; Marco de Gasperi eta Emanuel Manzi italiarrak dira faborito

Zapatuan Anboto Kilometro Bertikaleko laugarren aldia korrituko dute Atxondon; lasterketa 15:00etan hasiko da Arrazolan. Orain arte, atleta euskaldunak eta espainiarrak izan dira parte-hartzaile; aurtan, lehenengoz, nazioarteko atletak ere etorriko dira, eta ez nolanahikoak, gainera: munduko onenetakoak. Gizonetan irteera puntuan egongo dira munduko txapeldun eta txapeldunorde diren Urban Zemmer eta Nicola Golinelli zein Marco De Gasperi gaur egungo izarrik handienetakoa; hirurak italiarrak dira. Emakumeetan Emanuel Manzi, Antonella Confortola eta Valentin Belotti etorriko dira, hauek ere goi mailakoak.

Emakumeetan Oihana Kortazar irabazteko hautagaien artean dago

Dena dela, emakumeetan ez dugu zertan inbidiarik eduki, parte hartuko duen izarrik handiena euskalduna delako: Oihana Kortazar Mendi Lasterketen Europako Txapelduna da, eta oraintsu International Skyrunning Federationek antolatutako Munduko Kopa irabazi du.

Kortazarregaz batera, Euskal Selektzio osoaren jarduna



Italiarrekin batera, emakumeetan Oihana Kortazar da lasterketa irabazteko faborito. Brinean

hurretik jarritzekoa izango da, besteak beste, Javier Olaberria etorriko delako. Kontuan hartzeko izenak dira, gizonetan, Ionut Zinca, Didier Zago —iazko irabazlea— eta Michel Rabat ere.

Guztira, 370 atletek parte hartuko dute lasterketan, eta

horietatik 170 dira nazioartekoak. Banatuko dituzten sariak ere badute zerikusirik arrakasta horretan; irabazleek 1.500 euro jasoko dituzte, eta errekorra apurtuz gero beste 1.200 euro.

Aurtengo aldiko beste nobedadeetako bat da Euskadi-

ko txapelduna ere Anboton erabakiko dela.

Antolatzaileen esanetan, lasterketak hainbesteko arrakasta izan duenez, Arrazola inguruan karabanentzako tokia egokitu dute, etorriko diren guztiak hartzeko. ■ J. Derteano.

Onenekin lehia ibili da Iturriaga errepidean

Kopenhagen jokaturako Munduko Txapelketan, erlojupekoak utzitako aho zapore garra-tza garbitu zuen Eneritz Iturriagak errepideko lasterketan, 25. sailkatuta.

Abadiñarra benetan pozten duena azken sprintera arte onenekin lehia aritu izana da: "Oso pozik nago nire buruagaz. Lehiakor sentitu naiz, erasoei erantzun diet eta erasoren bat neure ekimenez ere sortu da", azaldu du abadiñarrak. Lasterketa Giorgia Bronzinik irabazi zuen, eta Marine Vos izan zen bigarren. ■ J.D.

Liga hasiko dute Durangaldeko hainbat taldek

Asteburuan Durangaldeko hainbat taldek lehiaketa ofizialari ekingo diote. Emakumeen futboleko lehen erregionalean lurretako eta Elorriok etxean jokaturako dute Ugao eta Pauldarrak taldeen kontra. Gizonetan Abadiñok bigarren erregionalean, eta Berriz B, Elorrio B, Extremeño, lurretako B, Ezkurdi, Zaldúa Bk hirugarren erregionalean ligak hasiko dituzte.

Areto futbolearen ere, Abadiño Lagun eta Presion Brek goren mailan eta Abadiño-ko Gaztetxiek, Dantxari, Elorrio-ko B eta Sapuberri lehenengo erregionalean lehiaketa ofizialean murgilduko dira. ■ J.D.

Buruz buruko zesta txapelketako finala Durangon jokaturako dute

Urriaren 15eko larunbatean izango da finala, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan; finalurrekoa ere hartuko du Durangok



Txapelketan parte hartuko duten hainbat pilotari batu ziren aurkezpen ekitaldian.

Astehenean Durangoko Udaltean egindako txapelketaren aurkezpena final-laurdenetako neurketen zozketa egiteko ere baliatu zuten. Lau pilotari iazko lehenengo erronda gaitututakoak dira: Goikoetxea, Egiguren Ila, Lopez eta Lander; beste laurak enpresak aukeratutakoak dira: Hernández, Erkiaga, Konpa eta Irastorza.

Egiguren-Konpa eta Lopez-Irastorza lehen irabazleak Durangon

Txapelketa domeka honetan hasiko dute, Gernikan, Goikoetxea eta Erkiagaren arteko norgehiagokagaz. Urriaren 8an final-laurdenetako partida bi jokaturako dituzte Markinan, 18:00etan hasita; lehenengo Lopez Irastorzaren kontra lehiatuko da, eta ondoren Egiguren Ila eta Konpak neurtuko dituzte indarrak. Final-laurdenetako

azken norgehiagoka Lander eta Hernándezen artekoa da, baina oraindik ez dute erabaki non eta noiz jokaturako duten.

Urriaren 12ko lehenengo finalurrekoa Donostian jokaturako dute, eta urriaren 13ko bigarrena Durangoko Ezkurdi Jai-Alain. Lopez-Irastorza eta Egiguren Ila-Konpa bihoteen arteko irabazleak lehiatuko dira Durangon, 18:00etatik aurrera. Final handia urriaren 15ean, 18:00etan jokaturako dute Durangon; aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte. ■ J.D.

PARTIDUAK

FINALERDIAK

Urriak 12, 18:00

Donostiako pilotalekua

Urriak 13, 18:00

Durangoko Ezkurdi jai alai pilotalekua

FINALA

Urriak 15, 18:00

Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekua

Duatloi herrikoia prest, gazte zein helduentzako

Mugarra triatloi taldeak antolatuta, seigarren aldia egingo du domekan; adin tartetean banatuta, hiru ibilbide antolatu dituzte



Adin askotariko parte hartzaileak izaten du Duatloi herrikoia. Mugarra

Domekan, Durangoko VI. Duatloia ospatuko dute Durangon. Urtero legez, haur, gaztetxo zein helduentzako ibilbideak antolatu dituzte, lasterketari jai giroa gehituz. Izen-ematea domekan bertan egin daiteke, 09:00etan, lasterketa hasi aurretik; zapatuan 19:30etik 21:00etara ere badago apuntatzeko aukera, Gure Kabia tabernaren kanpoaldean.

Lehenengo lasterketa 8-14 urte bitartekoentzat izango da, 10:30ean. Santa Anatik hasita, ibilbide hau osatuko dute: 600 metro arineketan (Santa Ana, Barrenkale, Goienkale), hiru kilometro bizikletan (Pinondo, Tabira, Santanoste...) eta beste 600 kilometro arineketan.

Santa Anatik abiatuko dira lasterketa guztiak; helduen duatloia 12:00etan hasiko da

Segidan, 11:00etan, 0-7 urteko haurrek ekingo diote lasterketari, gurasoek lagunduta, horrela nahi bada. 300 metro egingo dituzte arineketan Alde Zaharrean, bi bider, eta kilometro bat bizikletan.

Gaztetxoek saioak amaituta, 12:00etan, 15 urtetik gorako txanda izango da. Lehenengo tartean, arineketan osatu

beharreko lau kilometroak Barrenkale, Kanpatorrosteta, Laubideta eta Kalebarria inguruan osatuko dituzte. Bizikletako 11 kilometroak osatzeko Errotatik gora joango dira, Santikurutzeko biderantz eta Abadiñotik bueltan etorriko dira. Azkenik, beste kilometro bi egin beharko dituzte arineketan.

Otzara bat zotz

Duatloia inguruan hainbat ekimen prestatu dituzte. Parte hartzaileentzat zein bertaratzen direnentzat edariak banatuko dituzte, eta produktuz betetako otzara bat ere zotz egingo dute. Mugarra Triatloi Eskolaren inguruko informazio guinea ere ipiniko dute. ■ J.D.

Iurretan kadete eta gazte mailako finalak pilotan

Durungaldeak ez du ordezkariarik izango; faborito ziren arren, Otadui eta Calleja iurretarrak finalaurrekoetan kanporatu dituzte

Pablo Berasaluze Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte domekan, 16:00etatik aurrera. Kadete-gazte mailan, Zubikarai markinarrak eta Ibarrondo arrankudiagarrak osatutako bikoteak Ezkaraiko Dario eta Leioako Uriberen kontra jokatu du Olaburun.

Bikote biak sorpresa eman da heldu dira finalera. Zubikarai eta Ibarrondok txapelketa irabazteko faborito ziren Iribarria ordiziarra eta Otadui iurretarra kanporatu zituzten finalaurrekoetan. Aurreko egunetan Amezketako txapelketako buruz buruzko finala irabazi zuen Iribarria, eta nekea nabari zitzaion

partida erditik aurrera. Dariok eta Uribek ere ezustean irabazi eta finaletik kanpora utzi zuten Calleja iurretarra.

Kadeteen mailan logikak gidatu du txapelketa. Espero ziren heldu dira finalera; Bakaikoa eta Barriola zizurta-

Ondoren, Urrutikoetxea eta Apraiz Berasaluze eta Zabalen kontra lehiatuko dira

rek Amorebieta-Etxanoko Eloorriaga eta Markinako Arrasate izango dituzte kontrario. Bigarren kolpe indartsuagoa daukate, eta eurak dira faborito; hala ere, kontuz Bakaikoagaz, sasoiko dago-eta.

Profesionaletakoa partida

Final bi horien ondoren, profesionaletakoa partida ikusi ahalko da: Pablo Berasaluze eta Jon Ander Albisuk Arretxe II.aren eta Alexis Apraizen kontra jokatu dute.

Final bietarako eta profesionaletakoa partidetakoa sarra 20 euro da jesarrita, eta 10 euro zutunik. ■ J.D.

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea



Denboraldi berria hastear

Uda pasatu da. Iraila ere ia-ia bai. Eta, egun hauetan, irailaren bukaeran, hasten dira txapelketa gehienak gure inguruan.

ACB liga, Bilbon jokatu den Superkoparekin hasiko da. Eta nola hasi! Lau talde bikain, eta bi gureak, etxekoak: Bizkaia Bilbao Basketek, arin egin zituen udako lanak, eta Roger Grimau, D'or Fischer eta Raúl Lopez fitxatu ditu Euroligan arituko den lehen denboraldirako. Esperientziadun eta maila handiko jokalariek dira; iazko taldeari gehituta, oso konpaktoa eta langilea den taldea egin dute.

Gasteizen ordea, denbora gehiago hartu dute eta egunok argitaratu dute euren azken fitxaketa. Marcelinho Huertas agurrarekin, Pablo Prigioni dator bueltan. Baina aldaketa nagusia barruko jokoan eman dute gasteiztarrek: Batista eta Barac joan dira, eta Joe Dorsey, Milko Bjelica eta Kevin Seraphin hasiko dira. Azken horrek Maciej Lampe ordezkatu du, NBAko 'lockout' delakoak irauten duen bitartean, bere lesio gogorra errekuperatzen duen bitartean. Horiek guztiek, San Emeterio, Teleovic, Ribas, Nemanja Bjelica eta abarrekin oso talde indartsua eta konpetitiboa osatzen dute.

Donostian, oster, aldaketa nagusia entrenatzailea izan da. Sito Alonsoren eskuetan dago taldea orain. Eta nahiz eta diru aldetik beste bi euskal taldeen mailan ez ibili, egin dituzte fitxaketa berriak; hala nola, P. Lorant, Papamakarios, Korolev eta Sergi Vidal. Talde langilea eratu du Alonsok.

Zorten on denoi!

Munduko errekorra lortu du Jon Karrok

Diabetea eta kirola bateragarriak direla erakutsiz, 24 orduan bizikletan ibili da

Nekatuta baina lortutakoaz pozez gainezka helmugaratu zen Jon Karro abadiñarra, 24 orduan segidan bizikletan ibili ondoren. Dozenaka herritarrek eta Jose Luis Navarro alkateak txaloz hartu zuten 650 kilometroak osatu zituenean.

Gainera, horrelako proba bat egiten duen munduko lehenengo laguna izan da; epaile ofizial batek itzuli batean baino gehiagotan lagundu zion errekorra konfirmatzeko. Erronkan

bidelagun izan zituen Julian Sanz triatleta zein Ruben Perez eta Koldo Fernandez de Larrea txirrindulariak, besteak beste.

Bitxikeria moduan, aipagarria da Igorre inguruan aita-seme batzuek hamar orduan animatu zutela Karro. Bederatzi urteko semea diebetikoa da lau urte zituenetik, eta horregatik hainbesteko animoak; "Jakitean hunkitu egin nintzen", dio. ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org



Hainbat kide izan zituen bidelagun kilometro askotan.

Errealitatera bueltan, igoera fasera sailkatzea du helburu Tabirakok

EBA mailako ametsa ahaztu eta autonomia mailako oilarrekin borrokatuko dira gizonak



Gizonen eta emakumeen talde nagusiak. Judit Fernandez

Asteburuan ligari ekingo diote Tabirako Baqué klubeko gizonen eta emakumeen talde nagusiek. Alberto Alonso eta Txiki Garitaonandiarren aginduetara, gizonen taldeak bost jokalar berri izango ditu aurten. Gehienak bigarren taldetik hartutako gazteak dira: Urko Zamakona joko antolatzailea, Xabier Bereziartua eta Unai Otxandiano hegalekoak, eta Roberto Onaindia eta David Tudela pibotak. Taldea utzi dute, aldiz, Ruben Arteaga (EBA mailan jokatu du Zornotzagaz), Asier Astorkia (orain arteko kapitaina Anbotopekora joan da), Oinatz Meñika, Unai Bereziartua (Torrelavegan jokatu du) eta Mikel Agirrek.

Iaz EBA mailatik jaitsi ondoren, aurten, zelanbait esatearren, euren inguru naturalean ibiliko da berriro Tabirako Baqué. Helburua "lehenengo bosten artean amaitzea da", Mikel Larrañaga kapitainaren esanetan, horrela bigarren fase-rako sailkatuz. Bihar San Ignacioren kantxan jokatu dute.

Gizonek lehenengo bosten artean amaitu gura dute, bigarren fasera sailkatzeko

Emakumeei dagokienez, Alberto Alonso entrenatzaileak iaz baino "talde indartsuagoa" dutela uste du, eta sailkapenaren erditik gora ibiltzea itxaroten du: "Iaz ere berdin uste genuen, eta

A. Molina: "Maurtua mailako jokalaririk onenetakoa da"

azkenean ez ginen hain ondo ibili. Aurten taldea alai eta lane-rako gogoz ikusten dut".

Maurtuaren itzulera

Nobedadeen artean, Nuria Maurtuaren itzulera da aipagarriena. Londresen burututako ikasketetatik bueltan, berriro taldera itzuli da, eta, zelan ez, besozabalik hartu dute: "Mailako jokalaririk onenetakoa da, zalan-tza barik", Molinaren ustez. Horrez gainera, Eibarren ikasten dabilen Amaia Araiz nafarra ere batu zaie, eta gazteen taldetik Alazne Urien eta Jone Andres igo dituzte. Zapatuan Obenasa-ren kantxan jokatu dute.

Beheragoko mailetako hainbat taldek ere ligak hasiko dituzte; lehenengo erregional berezian, Tabirako Baqué eta Anbotopeko ariko dira. Emakumeetan Julza-Zalduak ere denboraldiari ekingo dio. ■ J.D.

Bidezabalgo kadeteak Espainiako klub finalerako sailkatu dira

Lehenengoz lortu dute zortzi onenen artean sailkatzea; finala urriaren 15ean izango da

Bidezabalgo kadeteetako neskak etorkizun oparoa dutela erakusten ari dira. Joan zen asteburuan, Valladoliden, Espainiako klub finalerako sailkatzea lortu zuten lehenengoz. Finalean Espainiako zortzi talde onenak lehiatuko dira, urriaren 15ean.

Valladoliden Leire Gorritxategi lehenengo sailkatu zen, jabalina jaurtiketan (32.01

metro). 300 metroetan, pertikan eta luzera jautzian bigarren amaitu zuten Laura Castrillo, Miren de Regil eta Uxue Escribanok. Hainbat hirugarren postu ere lortu zituzten, erregulartasuna erakutsiz: Alazne Etxebarria 100 metrotan, Nora Narbaiza 1.500 metro hesitutan, Garazi Lekunberri 3.000 metrotan, Ainhoa Azpiazu pisu jaurtiketan eta Ane Rafols disko jaurtiketan. ■ J.D.



Valladoliden bigarren amaitu zuten, Marathon-en atzetik.

Oskar Hernández Elorrioko entrenatzaile

Zuzendaritzak aurkitu du Alkortaren ordezkia: Oskar Hernández leioarra

Elorrio Futbol Taldeak kirol arloan bakarrik kontzentratu ahalko du hemendik aurrera. Liga entrenatzaile finko barik hasi zuten, baina, dagoeneko, badute berria: Oskar Hernández 38 urteko leioarra, nahiz eta gaur egun Sopelan bizi den.

Denboraldia amaitu arteko kontratua egin diote. Bermeoren kontrako lehenengo jardunaldiaren bezperan fitxatu zuten, baina partida hartan Angel Díaz de Cerio jesarri zen aulkian. Joan zen asteko garai-pena, ordea, Hernández aulkian zela eskuratu zuten.

Elorriok ohorezko mailan jokatu du, eta Hernándezek esperientzia handia du maila

horretan, Ugeraga eta Balmaseda —gaur egun, hirugarren mailan— entrenatutakoa delako.

Elorrio Futbol Taldeko presidente Javier Agirreren esanetan, "pozik gaude fitxaketa berriagaz, bila genbiltzan perfileko entrenatzailea topatu dugulako". ■ J.D.

Ohorezko mailan badu esperientzia; Balmaseda eta Ugeraga entrenatu ditu

Agenda

FUTBOLA

GOREN MAILA

Zaldia - Moraza

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Moraza B

Zapatuan, 16:00etan, Larrazozelain

Berriz B - Betolatza

Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun

Elorrio B - Txurdinaga

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

HIRUGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Ugao

Zapatuan, 18:00etan, Larrazozelain

Elorrio - Paudarrak B

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia - Egintza

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

Sasikoa - Soloarte

Domekan, 12:00etan, Landakon

EUSKAL LIGA

Kurutzlaga - Eguzki

Zapatuan, 18:15ean, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Presion Break - Askartza

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxe - Arabella

Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian

Sapuberri - Elorrioko B

Zapatuan, 16:30ean, Landakon

SASKIBALOIA

BIGARREN A MAILA

(emakumeak)

Julza-Zaldia - Santurtzi

Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

Bilbao (Lapurd) - Arrieta (Markina)

Binaka:

Arrese-Castillo / Etxeberri-Alberdi

Urriaren 6an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Elorrio-Durango Ilarduya

Zapatuan, 17:00etan, Elorrioren

Hurrengo eraikuntza

IURRETA

ZARATE ELEXPE ERAIGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behe • Tel.: 94 681 66 73

Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

AMALURRA>



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Durangoko I. Azoka Ekologikoa antolatu du Marisatsak zapaturako

Eskualdean produktu ekologikoen ekoizleak geroago eta gehiago direla nabarmendu du Marisatsak

Martitzen, eguazten, eguen eta zapatuetan zabaltzen dute produktuak erosteko lokala elkarteko kideek

Andra Mariko elizpean elkartuko dira ekoizleak goizean zehar. Urtero antolatu gura du azoka Marisatsak, udazken hasieran

Marisatsa produktu ekologikoen Durangaldeko kontsumitzaileen elkartearen eskutik, bihar, urriaren 1ean, Azoka Ekologikoa egingo dute Durangon, Andra Mariko elizpean. Ekoizpen ekologikoko hainbat produktu egongo da bertan salgai: ortuariak, eztia, izozkiak, okela, txakolina, euskal pastela, ogia, gazta, kremak, landare sendagarriak...

Urtero errepikatzeko gogoz antolatu du lehen azoka hau Marisatsak, eta irail erdialdean finkatu gura dute. Zapatuan Bizkaiko eta Gipuzkoako 15 ekoizleak parte hartuko dute, eta Durangaldekoak ia erdiak izango direla azaldu du Marisatsako kide Agus Garciak.

Azokaren helburu nagusia eskualdeko ekoizleak ezagutzea ematea da. Agus Garciak

adierazi duenez, azken bost-sei urteetan asko hazi da ekoizle ekologikoen kopurua: "Lehenago pare batek baino ez zuten behar egiten era ekologikoan, eta orain hamar ekoizle baino gehiago daude eskualdean. Interesgarria da bertako joera, eta zifra hori igotzen joatea itxaroten dugu".

Ekoizleak ezagutarazi eta produktu ekologikoen kalitatea nabarmendu gura dute Marisatsa elkartekoek: "Kontsumitzaile garenez, beste herritarrek ere etxe ondoan horrelako produktuak badauzkatela jakitea gura dugu. Eskura daudela, eta ez direla garestiak, askotan uste izaten den moduan.

Azokan, produktu ekologikoez gainera, Marisatsa elkarteko informazioa egongo da eskuragai.

Lokala Alluitz kalean

Marisatsa elkarteko kideek duela gutxi aldatu dute lokala. Landakon zeukatena utzi eta orain Alluitz kalean daude, 7. zenbakian. Bertara eskualdeko eta inguruetako produktu ekologikoak eramaten dituzte, eta aste-ko hainbat egunetan produktu horiek erosteko aukera edukitzen dute bazkideek.

Martitzenean eramaten dituzte produktu freskoak bertara, eta 18:00etatik 21:00etara egoten dira bertan. Informazioa gura izanez gero, orduantxe gerturatu daiteke lokalera, edo honako ordutegietan: eguaztenetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eguenetan, berriz, 19:00etatik 21:00etara. Zapatu goizetan ere hasi dira lokala zabaltzen, 11:00etatik 13:00etara.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean
menu berezia 16 euro, 18e/ardoa,
20e/kriantza. Afariak egunero
astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntzaratz. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela-jangela eta balkoi handia. Ganbara. Berriztuta. Kalefazioa. 678-83 60 50.

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Eguzkitsua. Kalefazioa. Berriztatuta. Altzairuz hornitua. 180.000 euro. 655-73 74 47.

